



Justizia eske

Altsasu Gurasoak taldeak igande eguerdiko manifestazioan parte hartzera deitu du / 2-3

©ALTSASUGURASOAK

Sakanako Mankomunitateak aurtan 5,7 milioi euroko aurrekontua izanen du / 9

Etxarrenen industrialde berria egiteko lanak garagartzarozan hasiko dira / 5

Altsasuko Duatloia izanen da bihar, 15:30ean, plazatik; 170 inguru duatleta espero dira / 19

Nafarroako Kirol Jokoen bigarren jardunaldia izanen da igandean, Etxarri Aranatzen / 20

Bertsolari Txapelketa jokatu da bihar, Iruñean, eta Joxema Leitza txapel jartzailea izanen da / 21

m
Mondragon
Unibertsitatea
Goi Eskola
Politeknikoa

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Arranomendia 2. ORDIZIA — 943 88 00 62 — bulogca@goierrieskola.org



INGENIARITZA GRADUETAKO
ATE IREKIAK

GOIERRIKO
CAMPUSA

MARTXOAK 28
OSTEGUNA 17:30 / ARETO NAGUSIA

EKAINAK 1*
LARUNBATA 10:30 / ARETO NAGUSIA
*Batxilergoko lehen mailan dauden ikasleei zuzendutako ate irekia



Manifestazioa prestatzeko asanblada jendetsua egin zen asteartean.

Justizia eskaera Altsasutik

Altsasu Gurasoak taldeko kideek horixe zabaldu nahi dute igandean lau haizetara, 12:00etan, suhiltzaileen parketik abiatuko den "hau ez da Justizia" manifestazioarekin. Bruselatik etziko mobilizazioan parte hartzera deitu dute

ALTSASU
Igandeko mobilizazioaren atarian, Euskal Herriko makina bat ikas-tetxetan Altsasuko auziko zortzikotearekin elkartzan kontzentrazioak egin ziren atzo. Gaur, ohi bezala, 20:00etan, udaletxe parean kontzentrazioa egingen da. Horretan auzipetuen gurasoek, besteak beste, Bruselara egin duten bidaiaren berri emanen dute.

Herenegun abiatu ziren Europako hiriburu politikorantz eta gaur bueltatu dira. Iritsi eta berehala Antxon Ramirez de Aldak

eta Edurne Goikoetxeak eta Altsasukoak Aske herri plataformako Aritz Leozek prentsurrekoa eman zuten Europako Parlamentuan.

Ramirez de Aldak eta Goikoetxeak lehenik esan zuten Adurrek, Jokinek eta Oihane bi urte eta erdi daramatela preso eta Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek, berriz, 10 hilabete. "Ihes egiteko argudioarekin, zigor irmorik gabe, behin behineko espetxeratzearen gehiegizko aplikazioa da". Auzipetuen bi gurasoek "publikoki salatu" zuten, Es-

painiako Auzitegi Nazionalaren Apelazio Aretoaren epaia basakeria da". Gurasoen iritziz, "epaia akusatzaileen ikuspegitik eraiki da, aurkeztutako frogak, lekukoak eta ebidentziak kontuan izan gabe, zigor handia justifikatzeko helburu bakarrarekin". Goikoetxeak eta Ramirez de Aldak gaineratu zuten, "Guardia Civila kolektibo zaugarriekin parekatzea, eta azken horiek babesteko pentsatutako diskriminazio astungarriaren erabilerak zigorrak handitzeko borondatearen lekuko dira".

Bigurasoek esan zuten, "gure kasuarekin atea zabaltzen zaio hain anbiguoak diren legeen erabilera hedagarria eta arbitrarioa egiteari. Hori aplikatzea legegilearen esku beharko luke, ez epailerenean; Europako erakundeek estatuari gogorarazi izan dioten moduan, bestela demokrazia galera dakarrelako. Gaur gure seme-alabak dira, etorkizunean, edozein".

Altsasuarrek aldamenean agerrialdia babestu duten Josep Maria Terricabras (ERC), Ana Miranda (BNG), Xabier Benito (Podemos), Jordi Solé (ERC), Miguel Urban (Podemos), Josu Juaristi (EH Bildu), Izaskun Bilbao (EAJ) euro-parlamentariak izan dituzte. "Guztiendako epaia bidegabea da, eta gure kasuan estatua gure eskubide guztiak urratzen ari dela argi ikusten dute", adierazi du Goikoetxeak.

Harremanak

Herenegungo prentsurrekoaren ondoren, gurasoak eta plataformako kideak aipatu politikariek eta Portugal, Flandria eta Irlandako euro-parlamentariek eta Irlandako euro-parlamentariek bildu ziren. "Auziaren berri eman genuen, batzuk dagoeneko ezagutzen zuten. Denak laguntzeko eta auziaren berri zabaltzeko gogoz daude. Entzuten gaituen edozeinek ez du uste hau egoera demokratikoa denik". Guztien artean Altsasuko auzia Europar salatan segitzeko proposamenak adostu zituzten.

Altsasutik joandako ordezkariak Flandriako Parlamentuan Belgikako barne ministro ohi Jan Jambonekin eta hainbat parlamentariarekin bilera izan zuten atzo. Auziaren berri eman ondoren, Jambonek "auziaren inguruko lanketa egiteko konpromisoa hartu du", azaldu du Goikoetxeak.

Arratsaldean Altsasu Gurasoak taldeko Bel Pozuetak estatu-indarkeriari buruzko ekitaldi batean parte hartu zuen Herrialde Katalanetako eta Korsikako ordezkariarekin batera. Altsasuko auziaren kronologiaren errepauso egin zuten. ICEC, Europar

Hiritarren Nazioarteko Batzordeak, antolatutako ekitaldia zen. Erakunde horrek estatutik gabeko Europako nazioak biltzen ditu. Bruselako egonaldia despeditzeko, gaur, Belgikako Langileen Alderdiarekin (PTB) bilduko dira.

Ramirez de Aldak esan duenez, "egin duguna, guretako inportantea da. Europar bozgorailu handia aurkitu dugu. Nahiz eta gure kasua txikia izan hemen handia bihurtzen da".

Hirutan Bruselan

Egun honetako egonaldiarekin, Altsasuko Gurasoak taldeko ordezkariak Europako hiriburu politikoan dauden hirugarren aldian da. Estreina 2017ko gailaren 29an izan zen eta, besteak beste, estatuan egiten ari zen terrorismo delituaren erabilera okerra salatu zuten. Orduan 51 eurodiputatuk sinatutako adierazpena ekarri zuten. Egundera fiskaltzak 275 urteko espetxe zigorra egin zuten. Bi hilabete beranduago Europako Batzordeko lehen lehendakariorde Frans Timmermans esan zuen gertutik segituko dutela Altsasuko auzia. Zigorren proportzionaltasuna eta oinarrizko eskubideak betetzen direla aztertuko zuela. Azken horrek Coviteren erreakzioa eragin zuen eta Altsasuko auziaren bere bertsioa emanez, Europako Batzordeko presidentea Jean Claude Juckerri gutuna bidali zion azaroan. Epaiketa egin ondoren, Gurasoek Bruselako bigarren egonaldia joan den urteko maiatzaren 28an egin zuten. Epaiketa justurako bermerik ez zela izan gaztigatu zuten. Lau egunetara epaia aterazena.

Handia

Aurreikuspenek diote igandean Altsasun izanen den manifestazioa jendetsua izanen dela. Hilaren 7an apelazio epaia jakin denetik hainbat herri eta hirietan protesta kontzentrazioak egin dira. Eta etziko manifestazioa erortzeko deialdiak oihartzun handia izan du. Katalunia-

ko hainbat tokietatik auziaren etorririko dira, baita Aske edota Madrildik ere. Eta, jendetsua izanen da. Euskal Herriatik.

Altsasuko auziko atxiloketa izan zirenean, 2016ko azararen 14an, manifestazio jendetsua hartu zuen Altsasuk. Gaur gertatu zen hurrengo eguna Zazpi espetxeratzeak jakinarazi ondoren, azaroaren 20an Altsasuko 20.000 pertsonen manifestazioa egin zuten herriaren bertan. Aurreneko epaia jendetsua izan zen epaia jakin ondorengoa. "ez da justizia" manifestazioa urte hartako garagarriaren Aurrekariek ere igandeko manifestazioa jendetsua izanen duen aurreikuspena da. Bitartean, ostiralero moduan, hitzorduak udaletxe parean da, 20:00



Altsasuarra Jean Jambonekin.

Aniztasun funtzionala

Iruñeko manifestazioaren ondoren, bezala, aniztasun funtzionala duten pertsonen manifestazioan laburbidatu edo pasabideak antolatu dituzte. Bi zehazki: Garbitoki eraikitik San Juan eta Zehazki kaleen bidegurutzera joaneko eta San Juan kaletik Zehazki kalea joateko besteak. Auziaren ekitaldia behar bezala la segidazaten oihartzun ondoan tokia egingen zuten aniztasun funtzionala duten pertsonen.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia

5.900€

Beirak lehorrean jarrita

STV

Isolamendu nukleo indartsua

IKD

Aparteko azala koloreztatua

aparteko



ASTEKOA

RAF ATXURI

Jasaile

Altsasuarren erdal jarioaren hondarretan hainbat euskal hitz pausatu dira tenkor, zehaztaile, lekuko eta hizketaren edergarri. Hona sortatxo bat: korosti, tentagarri, zimurro, supil, gailur, zotola, siets, etxekalte... Bada bat, ordea, nire ustetan bereziki esanguratsu eta bitxia dena: "jasaile" deritzana, hots, hilkutxa edo lepondo gainean zama-eramalea. Kontzeptu garrantzitsua da honako hau erdal ordain egokirik aurkitu ez delakoan. "Fijate si tenian relación que le hizo de jasaile para su madre...".

Eta hara, Atsasuko herria dugu jasaile 2016ko ferietako goiz hartaz geroztik, baina zortzi familiaren baitan gauzatu da haren ahal guztian basakeria mediatiko eta judizial umiliagarri hau. Barruan diraute zazpi gaztek inork argi eta garbi azaldu ez duen mendeku baten truke. Auzitegi Nazionalak berretsi du ia-ia bere hartan iaz emaniko epai zital eta ikaragarri hura. Europako gizarte garaikidean edonor erresuminduko lukeen sententziak indarrean darrai eta ez dirudi Espainia eternal hartan astindu nabarmenik eragin duenik.

Gauzak eta sententziak horrela, saminaren sokak jarraitzen du eguneroko jardunean, euri langar mehe zikin bat bezala, haizete zakar eta gupidabe baten zasztadaz.

ZAZPI LAGUN HORIEI EGOKITU ZAIE JASAILEROLA; NORBAITEK ORDAINDU BEHAR ZUEN

Zazpi lagun horiei egokitu zaie jasaile-rola; norbaitek ordaindu behar zuen (halaxe agindu zuen Mariano Rajoik) eta ordaintzen ari dira gogoz

eta ziegaz, ordaintzen ari direnez. Norbaitek erabaki zuen Altsasu eredu zigortu behar zela, eta garai postmodernoetan Fuenteovejuna apologetiko eta terrorista samarra gertatzen da, beraz, utikan apaxteko guztiak eta "a por ellos" grinatsua eta konstituzional batez zigor erraldoiaren eraikitzeari ekin zioten.

Bi urte eta erdi, herri oso bat elkartasunez eta zutik jasaten, baina batez ere zazpi familia neke eta penetan jasaile. Europako duintasuna ere jasaten ari.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Tren soziala bai, AHT gelditu

SAKANA TRENAREN ALDE

Joan den urteko urtarrilean, Sustapen Ministerioak Sakanako Abiadura Handiko Trenaren (AHT) bigarren ibilbidearen proposamenak jendaurrean jarri zituen. Planoak aztertu ondoren, proiektuak ibarrarendako ez duela inolako onurarik izango ikusi genuen. Ez ekonomia eta gizartearen garapenaren ikuspegitik, ezta ingurumenaren ikuspegitik ere. Proiektuak Sakanarendako lubetak, tunelak eta biaduktuak, hondakindegia, hormigoizko zabal luzeak, elektrizitate azpiestazioak, eta abar luze bat bakarrik ekartzen ditu.

Gizartearen zati txiki baten mugikortasun-beharrak soilik

estaltzen dituen proiektua da, distantzia handietara hiri handien artean bidaiatzen dutenena. Gainerako lekuek ez dute garraibide horrekin loturarik, eta zenbait kasutan zerbitzuak galtzen dituzte, orain egiten duten distantzia luzeko geltokietan gelditzeari uzten diotelako.

Eskatzen dugun eta proposatzen dugun alternatiba honako hau da: egungo tren hobetzea eta bulkatzea. Hau da, herri, hiri eta industrialdeak lotzen dituen, merkantziak eta bidaiariak garraiatzen dituen, lurraldea egituratzen duena, eta edonorentzat ekonomikoki eskuragarria dena.

Gure proposamenak askoz kostu txikiagoa du abiadura handiko plataforma berri bat

eraikitzeak eta mantentzeak baino. Kontuan hartu behar da Iruñea eta Euskal Y-aren AHT-ko zatiak 800 milioi eta 2.400 milioi euro arteko kostua eduki dezakeela, bakarrik azpiegitura egiteko.

Horregatik, AHT-ren egungo lanak eta tramitazioak gelditzea proposatzen dugu, eta ohiko trenaren hobekuntza ekarriko duen alternatiba aztertzea, orain arte egin ez den azterketa. Hau da burutuko dugun manifestazioaren xedea, "Tren soziala bai, AHT gelditu. Respetad la voluntad popular" leloa izango duena, martxoaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan, Altsasuko Suhiltzaileen parketik abiatuko duena.

GUTUNA

Altsasu kasua. Argitze oharra

MAITE GIORDIA SOLANO, ANA LARRAZA ERDOZIA, AMAIA AMILIBIA SALGADO ETA NEKANE ORTIGOSA MUJICA

ALTSASUKO AUZIAREN GATIK
ESPETXERATUTAKO ZAZPI GAZTEEN
LAU AMA

Gure seme-alaben kontrako injustizia eta neurrigabetasun egoera gogor baten ondorioz elkartzen hasi ginen guraso talde bat orain dela bi urte baino gehiago; Altsasu Gurasoak taldea, horrela

sortu zen. Hasieratik, talde plurala izan gara eta gure filosofia Giza Eskubideen defentsan oinarritu da.

Gure seme-alabendako justizia eskaera irmoa egin dugu. Bide horretan, entzun nahi izan gaituzten indar politiko eta sozial guzti-guztiengana jo dugu, auzi hau jakinaraziz eta laguntza eskatuz.

Gure taldean azken egunotan izan diren berriak direla eta, egoki iruditu zaigu honako hau argitzea: Altsasu Gurasoakeko kide gisa ez dugu hautes-zerrenda jakin baten aldeko hautua egiten.

Parlamentua osatzen duten alderdi guzti-guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu; neurrigabetasun hau zuzentze aldera laguntzen ari zaizkigun mugimendu sozial zein pertsona anonimoei ere, bihoakie gure esker ona.

Momentu samin honetan, Auzitegi Nazionalaren sententziaren berrespenaren ondotik, zuen babesa berriro eskatu nahi dugu: arren eskatuz martxoaren 24ko manifestazioan parte har dezazuen. Izan ere, honetan guztian argi eta garbi dagoena hauxe da: "Hau ez da justizia".

guaixe

SAKANA KO AS TEKARI A

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



David Oroz eta Maite Iturre akordioa sinatzean. UTZITAKOIA

SGAk eta Cederna-Garalurrek elkarlana hobetuko dute

Bi erakundeek ibarrean egiten duten lanaren eraginkortasuna handitzeko akordioa sinatu dute

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziako (SGA) eta Sakanako Mankomunitateko lehendakari David Orozek eta Cederna-Garalurreko presidente Maite Iturrek akordioa sinatu dute. Bi erakundeen arteko elkarlana 2014tik errealitatea da. Orain arte egindako "lanaren balorazio positiboa" egin dute Iturrek eta Orozek. Aitortu dutenez, Sakanako Plan Estrategikoaren berrazterketa prozesuan, gobernantza gomendioen artean dago Utzugane, Sakanako Garapen Zentroan dauden eragileen arteko integrazio lanarekin segitzea. "Hobetzeko aukera dago koordinazioan eta proiektuen eta ekimenen garapena elkarlanean egiteko". Sinatzaileek testu inguru horretan kokatu dute akordioa.

Elkarlan akordioan erakunde bakoitzak Sakanako eskualdean eskaintzen dituen zerbitzu espe-

zializatuak zehazten dira eta proiektuak elkarlanean garatzeko protokoloa zehaztu da. Akordioak bi helburu nagusi ditu, batetik, SGAREN eta Garalurren arteko elkarlana arinagoa eta eraginkorragoa izatea. Eta, bestetik, Sakanako beharren arabera proiektu berriak gauzatzea. Horieta proiektu batzuk dagoeneko lantzen ari dira eta aurreratu dutenez, "laister komertzioaren inguruko ekimen baten berri" emanen dute.

Utzuganen SGA, Cederna-Garalur eta Sakanako Enpresari Elkarte (SEE) daude eta elkarlanean aritzen dira. Orain SGAK eta Garalurrek sinatutako akordioaren parekoa sinatu zuten SGAK eta SEEk 2016ko garilaren 22an, hiru arlotan: prestakuntza, enpresen lehiakortasuna eta erakunde publikoen eta enpresa ehunaren arteko elkarlana hobetzea eta sinergiak sortzea.

Industrialde berriko lanak garagartzaroan

Lanek urte bat iraunen dute eta han kokatuko den lehen enpresa oloaren eratorriak egiten dituen Harivenasa izanen da. Nafarroako Gobernuak eta enpresako ordezkariak akordioa sinatu dute. 50 enplegu sortzea aurreikusten da

ARAKIL / ETXARREN

Nafarroako Gobernuak Udalez Gaindiko Planaren bidez Urritzola, Etxarren eta Ekai arteko espazioa aukera eremua, industrialdea, izendatu zuen. Arakilgo alkate Patxi Uharte Garrok azaldu digunez, etorkizunean guztira 300.000 metro karratuko industrialde bat sortuko da eremu horretan. Izendapen horren ondoren Nasuvinsa enpresa publikoak pausoak ematen hasi da eta lur horien jabe zen Arcelor Mittal enpresari eremuaren zati bat erosi dio, 170.000 metro karratu. Garrok azaldu digunez, "50.000 edo 60.000 m2 Harivenasa enpresaren izanen dira, beste zati bat industrialderako sarbideak egiteko eta gainontzekoa egin gabe utziko dute. Badirudi eskaera dagoen heinean garatuko dutela industrialdea". Beraz, etorkizunean enpresa gehiago hartuko ditu.

Arakilgo alkateak esan digunez, industrialdeko lanak garagartzaroan edo garilean hasiko dira eta urtebete iraunen dute. "2020ko garagartzarorako Harivenasa lanean egon nahi du". Uhartek azaldu digunez, industrialdea Urritzola eta Etxarrendik gertuago dago. Hara sartzeko sarbidea autobiarren eta Ekai artean egiten den borobil berri batetik



Industrialde berriak Ekairako bidetik izanen du sarbidea.

izanen da. "Ekaitik baino autobiatik gertuago egonen da sarbidea, eta autobiarri paralelo izanen da". Uhartek argitu dutenez, "etxarrendarrek lehen lehen sarbideak egitea nahi dute, obretako kamioi trafikoa herri erditik ez pasatzeko".

Esan bezala 170.000 m2-ko industrialde guztia momentuz ez da egiten, zati bat dagoen bezala geldituko da. Eta hura erabiltzeko eskaerak daude. Uhartek esan digunez, Harivenasako nagusiek lur sail hori olo aleak ere eta probatzeko erabili nahi

lituzkete. Baina Arakilgo abeltzainek ere haiak erabili nahi dituzte, Europako Nekazaritza Politika Bateratuko laguntzen-gatik eta ongarria zabaltzeko aukera ere. Alkateak argitu digunez, horretaz hizketatzen ari dira orain.

Nafarroako Gobernuak eta Harivenasa enpresako ordezkariak astelehenean sinatu zuten enpresa Etxarrenden kokatzeko akordioa. Nasuvinsa enpresa publikoak lurra erosteko eta lehen urbanizazio lanetarako 1,5 milioi euro bideratu ditu.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Batetik bestia
10:20 Eguneko albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin
11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

Alfredo Alvaro Igoa UNANU

Nolakoa izan zen hasiera?

Guztiendako kontu berria zen. Aurreko esperientziarik ez zegoen. Nola funtzionatuko zuen ere ez genekien. Ziurgabetasun sentipena genuen.

Nondik landetxea jartzeko ideia?

Aspaldiko kontua zen. Gu Pirinioetara joaten ginen, Anson zegoen ostatu batera joan ginen. Toki atsegina zen. Mahai bat zegoen eta haren inguruan eseritzen ginen denak. Guztiok gure ilusioak eta gure egitasmoak partekatzen genituen. Oso interesgarria zen. Gure ideia beti izan da ostatu batean topo egiten duten bidaiariena, euren esperientziak, bidaiak, istorioak eta beste partekatzen dituztenak. Ideia horrekin hasi ginen.

Nolakoa izan zen hasiera?

Zailtasun bikoitza izan zuen. Landa-turismoaren hasiera zen. Zein erantzun izan zen zuen ez genekien. Pirinioetan, hasieran, ez ziren ostatuak, gelak baizik. Halakoak iragartzen karteltxoak zeuden. Erreserba egiterakoan jende batzuk galdetzen zuten ea maindireak edo mantak ekarri behar ote zituzten. Ez zela beharrezkoa erantzuten genien, dena jartzen genuela. Baina, bestetik, turismo tradizioa ia ezdeusa zen eskualde batean. Horregatik, lan bikoitza izan zen. "Ia honetatik nola ateratzen naizen. Ia nola moldatzen naizen". Zentzu horretan desertua zeharkatu dugu.

Landetxeen booma etorri zen gero.

Garapena azkarra izan da. Guztioi zentzu guztietan harrapatu gaitu. Azkartzea hain handia izan da telefonoa jartzea pentsatzetik wifia jartzera pasa gara. Garapena ikusgarria izan da. Arlo guztietan, eta azkar. Hasieran komunak partekatu behar ziren. Baina berehala gelek komuna izatera pasa ziren. Turismo-eskaintzaren garapen handia egon da ere. Nafarroan mila pasa landetxe daude.

Krisialdia nabaritu zenuten?

Bai. 2008koak, eta aurrekoak. Arlo guztietan bezala, oso garai onak, hala modukoak eta txarrak egon dira. Berrasmatzen ere egon behar izan dugu garai batean. Antolakuntza aldetik Sakanako turismo elkarteak (Bidelagun), ez du zerikusirik gaur egungo egoerak duela ez askokoarekin, lauzpabost urtekoarekin.

Egun zein da landetxeen egoera?

Lehen zegoena beste kontu bat zen. Gaur egun antolakuntza

"Pentsatzen genuen: ez dago ezer. Ia nola ateratzen garen"

FERNANDO ETXAURI GALLARDO EDRONEKOA LANDETXEKO JABE OHIA

Unanuko landetxea Nafarroako Gobernuaren erregistroan jaso zen lehena izan zen.

31 urteren ondoren jubilatuta eta lekukoa Lizarraldeko bikote bati pasa diote



Fernando Etxauri Gallardon. ARTXIBOA

aldetik askoz hobeto dago. Sakanako Garapen Agentzia dago, esperientzia duen jendearekin. Bidelagun Sakanako turismo elkarteak, hasieran gauza horietaz guztiez tiraka ibili behar izan genuen, bilerak eginez eta beste. Gaur egun lantalde garrantzitsua dago eta gurdi horretatik tiraka ari dira. Eta nabari da.

Hasieratik landetxe eta ostatuak elkartzearen alde egin duzu.

Ez dut sinesten bakoitza bakarka gaiarekin aurrera egin dezakeenik. Nork bere landetxean, negozioan aritu beharra du. Ongi eginez. Eta bezeroak errepikatzea saiatur. Arlo teknikoagoetarako beharrezkoa da trebatutako jendea egotea. Eta bazkideek kolaboratu eta parte hartu behar dute. Hori oso garrantzitsua da. Bestela ez du etorkizunik.

Horregatik busti zinen ibarreko garapen proiektu guztietan?

Bai. Sakanako garapenaren alde egiten duten proiektuetan, beharrezkoa den tokietan, parte hartzea beharrezkoa dela pentsatu dut beti. Oso garrantzitsua da.

Baita Ergoienako Udala?

Bai. Laguntza eskatzen dizuten eskualde batean zaude. Eta esa-

"GARAPENAREN ALDE BEHARREZKOA DEN TOKIETAN PARTEA HARTZEA BEHARREZKOA DA"

ten duzu: udalean egotea tokatzen zait. Eta udalean ibarraren alde lanean zaude, merezi duten proiektuen alde lan egiten.

Bezeroetan aldaketarik izan da?

Aldatu da. Hazi gara eta beste merkatuetara iritsi gara. Sakana, eta Urbasa, izenak ezagunak egin dira. Bezeroak eta haien jatorria aldatu da. Lehen ezagutu gabe etortzen zen. Orain jendea badauki zertara etortzen den. Informazio gehiago dute. Lehen ingurukoak ziren. Orain, batez ere, kataluniarrak. Kataluniako bezero asko izan ditugu, orain lagunak direnak.

Bezeroekin izandako harremanetan?

Guk beti espazioa haiekin partekatu dugu. Ez diegu giltza eman iritsi direnean, ospa egin eta joan direnean bueltatu, ez. Gu haiekin bizitzen egon gara. Niretako landa-turismoaren esentzia bezeroekin egotea da, haien begiak izatea. Beti oso presente izan dugun aspektu bat izan da bezeroekin espazioa partekatzea.

31 urteren ondoren uzteko garaia.

Hausnartuta. Semea dugu eta nik galdetzen nion ea landetxearekin segitu behar zuen. Lan bat sortu zitzaien, bere istorioa beste bide batetik doa eta ezezkoa eman zuen. Bikotea eta biondako etxe puska bat zen. Ez du zentzu handirik biok hemen kontu honekin egotea. Saltzeko ez da etxe edo pisu bat normal bat. Landetxe muntaia egina duen eraikina da eta hurrengo egunean jarduna segi daitekeena. Saltzea erabaki genuen, landetxearekin segitzea nahi zuen bakarren bati. Saldua dago. Hemendik aurrera ez da Edronekoa landetxea izanen, landa-ostatua baizik.

Zein da aldea?

Administrazioaren ikuspegitik landetxe batek bete behar batzuk ditu. Araudi bat dago. Hura betez aritu zaitezke. Landa-ostatua sailkatutako-jarduera da, bete behar batzuk daude eta Industria Departamentuak kudeatzen du. Bezeroei begira, bestelako zerbitzuak eman daitezke, esaterako, jatetxea edo bestelako zerbitzuak izan ditzake. Halakoak landetxe batek mugatuago ditu.

Edronekoa.

Jabe berriak abiatu daitezela, ongi dihoakiela. Ni poz-positibo Edronekoa landetxeak martxan segitzen duelako. Beste izen bat? Berdin zait. Martxan jarrai dezala. Okerrena litzateke segidarik ez izatea, uztea eta etxea hondatzea. Horregatik, pozik.



800 gaztainondo landatu ziren Metei dermioan.



Jende asko elkartu zen auzolanean.

Etorkizuneko baso zatia eta onttoak landatu zituzten

Haritzak, gaztainondoak, astigarrak eta gorosti bat landatu zituzten Metei dermioan, 800 zuhaitz guztira

LAKUNTZA

Aitzurrak aldean zituztela, adin guztietako lakuntzarrek beheko basoko bidea hartu zuten larunbat goizean. Lakuntzako Udalaren guraso elkarten eta Biltoki gazte elkartearen deia erantzunez, bat egin zuten guztiek Metei dermiorako bidean.

Han Lur Geroa enpresako Xabier Erbitik basoberritzea egiteko zer zuhaitz erabiliko zituzten azaldu zien. Bertako haritza babestu behar den zuhaitza da, Erbitik esan zuenez. Landaketa-ekin haritz hori mantendu egingen da. "Astigarrak haritzarekin ongi etortzen den landare espezie bat da. Ez daude asko. Bioaniztasunarekin ere badu zerikusia". Haritzak eta astigarrak sartzeko zuloak hiru metroko distantzian zeuden.

Gaztainondoan landaketaren "garrantzia" nabarmendu zuen Erbitik: "aspalditik gaztainon-

doak zeuden, gaitz bat dela medio galdu ziren". Berreskuratzeko gaztainondo hibrido eta mikorrizatutako gaztainondoak landatu zituzten larunbatean. "Hibridoak esan nahi du lehen zegoen gaitzari aurre egiteko bilatu zela bi gaztainen arteko elkarketa bat. Gero, mikorrizatuak esan nahi du landareari txertatzen zaiola onttoak haztekoa. Horrek esan nahi du landarea onttoarekin heldu dela". Beraz, gaztainondoak hazten diren heinean onttoak ere aterako direla aurreratu zuen Erbitik. "Gaztainaz apartek onttoak bilduko dira". Gaztainondoak eta onttoek elkar lagunduko dutela ere argitu zuen: "gaztainondoak txikiak direnean, lehortea edo mantenugai falta badago, mikorrizak, onttoen birtutez, ur puntu horiek hartzen eta gehiago garatzen. Eta, alderantziz, Landareak ere laguntzen dio onttoari".

Arakilgo zuhaitz eguna Izurdiagan ospatuko da bihar

Urtetik urtera ibarreko herri batetik bestera salto egiten duen ospakizuna da Arakilgo zuhaitz eguna. Udalaren Kultura Zerbitzuak, Arakil Kulturak antolatu du biharko hitzordua. Hitzordua 10:30ean Izurdiagako futbol zelaiaren jarri du. Han zuhaitzak landatuko dituzte. Ondoren udalak elkartutako guztiendakio otamena eskainiko du. Hitzordua despeditzeko, 12:00etan, eskulan tailerra izanen da. Arakil Kulturatik haur, gazte eta helduak zuhaitz egunean parte hartzera gonbidatu dituzte. Nork bere aitzurra eramateko eskatu dute ere. Arakildarrak Izurdiagan zuhaitzak landatzera deituta daude, duela bi urte bezala



UTZITAKOA

Gaztainondo berriak Bakaikun

Hainbat bakaikuarrek auzolana egin zuten hilaren 10ean. Plazatik Auntzetxerako eta Bargarako bidea hartu zuten. Egitekoa: 16 gaztainondo landatzea. Lan erraza izan zen, Nafarroa Oinezera etorri ziren De Amicitia elkarteko boluntarioek lastailean zuloak egin baitzituzten. Landarea animaliez babesteko hesitu egin zituzten.



Haurrak,
poesia eta gu:

SORTU, ANTZEZTU, KONTATU, ESAN



HITZALDI-LANTEGIA

— NORK ESKAINIKO DU? —
Yolanda Arrieta Malaxetsebarria idazle eta literatur dinamizatzaileak.

— NORENAKO DA? —
Guraso, irakasle, irakasle-gai, hezitzaile, zainzaile eta bitartekariendako. Haur Literatura gustuko duen edonorendako.

— NOIZ IZANGO DA? —
Apirilaren 6an, larunbatarekin, 10:00etatik 13:00etara.

— NON IZANGO DA? —
Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

— NON EMAN BEHAR DA IZENA? —
Lantegian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aldeaz aurretik euskara1@sakana-mank.eus helbidean. Tokiak mugatuak izanen dira. Matrikula 10 eurokoa izanen da.

— ZEINTZUK DIRA HELBURUAK? —
Haur poesia ezagutzeko modurik eraginkorrena frogatuko dugu: sortu, antzeztu, kontatu, esan. Horretarako, hainbat joko eta ariketa egingo ditugu, eskua eta burua ez ezik, gorputz osoa ere mugituz. Erabat praktikoa izango da.

Antolatzailea:



Laguntzailea:




Maravillasen husteagatik lau sakandar epaituko dituzte

Sakanako lanketa egiteko asanblada irekia egingen da Altsasuko gaztetxean bihar, 11:00etan

SAKANA / ALTSASU

Iruñeko Nabarrerria auzoan zegoen Maravillas gaztetxea Nafarroako Gobernuaren aginduz bitan hustu zuen Foruzaingoak. Aurrenekoa joan den urteko agorriaren 17an izan zen. Bigarrena, berriz, ilbeltzaren 8an. Gaztetxearen hustearen kontura zabalduz auzibidean lau sakandar epaituko dituzte. Gazte lokalaren hustea salatzen errepide mozketaren transfeminista egin zen eta, horregatik, beste hiru sakandar auzipetu daude. Eta isunak ere jaso dituzte, "milaka eurotakoak". Zitazio horiek ematera foruzainak joan dira auzipetuen etxeetara.

Maravillas gaztetxeko kideek jakinarazi dutenez, momentuz 82 pertsonak "errepresio juridikoa jasoko dute": 35 auzipetu, 27 pertsonarendako isunak (oraingoz 100.000 eurotik gora), eta



Iruñeko gaztetxea zena. UTZITAKOIA

beste 20k isunak jasotzeko arriskuan. Epaiketa maiatzaren 9an egingen da eta hari begira, pasaden astean hainbat pertsona deklaratzera deitu zituzten. Egon daitezkeen deialdietara adi egoteko eskatu dute Maravillas herriarendako eskatzen dutenek.



Plataformako ordezkariak prentsaurrekoan. UTZITAKOIA

Autopista Elektrikorik Ez! 3. proiektuaren inposizioa salatu du

Maiatzeko parte-hartze proiektua "toxikoa" izan zela salatu du, "linea bera ez zen auzitan jartzen"

SAKANA

Castejon, Muru Artederreta eta Itsaso arteko goi tentsioko linea egiteko egitasmoari berrekin dio Red Electrica Españolak eta Gipuzkoa eta Nafarroa lotzeko 400 kilovoltioko (kV) argindar linea egiteko hasierako dokumentua prest du. Sakanatik barna pasako da egitasmoa. REEK lau alternatiba prestatu ditu. Horietako bitan aurreikusitako da Sakana zeharkatzen duten 220 kV-eko lineetako bat kentzea, beste batek aurreikusitakoa egitea eta, azkenak, linea bakoitzaren zatiak birpotenzialatzea eta zatiak desmuntatzea.

Autopista Elektrikorik Ez! plataformako kide diren hainbat udalako ordezkariak, sakandarrak barne, prentsaurrekoan gogorarazi zuten, "ardatz horretarako Red Electrica Españolak egindako hirugarren proiektua da, herri oposizioak atzera bota ondoren". Plataformako bozeramaile Alberto Friasek gaztigatu zuenez, "prozesua hiru elementuk bereizten dute: toxikazioa, inposizioa eta defentsa gabezia".

Joan den urteko maiatzean Red Electrica Españolak egindako parte-hartze prozesua eta haren ondorioak "herriak erabateko babesgabatasunean uzten dituen inposizioa hutsa justifikatzeko toxikazioa dira". Autopista Elektrikorik Ez! plataformako ordezkariak azaldu zuenez, parte hartze prozesuak "benetako eztabaida hutsalduek egiten zuten ardatzaren premia ez baitzen

parte hartze prozesuan jasotzen, soilik haren ibilbidea". Friasek jakinarazi zuenez, Irurtzunen, Tafallan eta Garesen herritarrek parte hartzeko bilerak egin zituzten Red Electrica Españolak. Haietara plataformako kideak joan ziren eta hitza hartzean esan zuten ez zutela parte hartuko, "linea eta dagoeneko erabakia duten ibilbidea justifikatzeko muntaia" zelako. Hiru herrietan hala gertatu zen, zeinetan plataformako kideak "edukiz hustutako propaganda kanpaina hutsa" salatu zuten. Eta gaztigatu zuten, ondoren, Altsasun, Beasainen eta Lekunberrin aurreikusitak zeuden bilerak Red Electrica Españolak ez zituzten egin. "Bost pertsonako parte hartzea izan zen".

Autopista Elektrikorik Ez! plataformako kideek uste dute herriak "babesgabe" daudela: "benetako eztabaidarako eta kontrasterako biderik ez izatean". Horri aurre egiteko plataformatik "erantzun sendo eta bateratua emateko" deialdia egin du. Argindar lineako dokumentua udalera iristean hainbat hautetsik sinatutako adierazpena aurkeztu hasiko direla aurreratu zuten. Autopista Elektrikorik Ez! plataformako ordezkariak gogorazi zuten, Red Electrica Españolaren argindar linea egitasmoa hartzen duten Gipuzkoako eta Nafarroako 220 udalek eta kontzejuk hura atzera botatzearen aldeko mozioak onartu dituzte eta 15.000 pertsonak alegazioak aurkeztu zituzten.

Itxipuru bi GKerekin elkarlanean hasi da

Iruñeko Apoyo Mutuo eta Altsasuko Ayuda Contenedores taldeekin elkarlanean ari da

IRURTZUN

Itxipuru antolatzen dituen bigarren eskuko azokagatik da eza-guna. Horiek antolatzeko herritarrek emandako objektuak jaso, sailkatu eta gero merke saltzen dituzte. Ateratako dirua elkartasun proiektu bat aurrera ateratzeko bideratzen da. Kontsumoaren inguruan hausnarketa bultzatu eta objektuen berrera-bilpena sustatu nahi du azoka horien bidez Itxipuru taldeak.

Jasotzen duten guztia ez dute azoketarako gordetzen, ordea. Gobernu kanpoko bi erakundeekin ari da lanean. Batetik, Iruñeko Apoyo Mutuo, Nafarroako Elikagai Bankuarekin hitzarmena duena. Errotxapeako Matesa eraikinean dute egoitza. Elkarteak 180 familiari baino gehiagori (500 pertsona pasa) jatekoak banatzen dizkie. "Jende gehienak bankuekin arazoak izan ditu eta askok etxebizitzak galdu dituzte. Hipotekak Kalte-tutako Plataformarekin, Alde Zaharrekoarekin elkarlanean ari dira", azaldu digute Itxipuritik. Elkarteak arropa euro baten truke ematen dute. Eta jasotzen dituzten altzariak administrazioarengandik jantzi gabe dauden pisuak jasotzen dituzten familiei ematen dizkiete. Apoyo Mutuoko kideak hilabetero Irurtzunerara etorri eta Itxipuruk jasotakoa eramane du. Hala ere, taldeak azoketarako zenbait arropa eta liburuak gordeko ditu.

Bestalde, Altsasuko Ayuda Contenedores elkartearekin elkarlanean ari da. Elkarte horrek hainbat herrialdetara materialez betetako edukiontzia bidaltzen ditu. Eta Irurtzungeo taldeak haiek betetzen laguntzen die.

Asteartero, 11:00etatik 13:00etara, jendeak emandakoa Itxipururen egoitzaren atean utzi dezakete, gero euren jasoko dute. Bestela, 620 254 230 telefonora hots egin daiteke.

HERRIAREN BORONDATEA ERRESPETATU

TREN SOZIALA BAI

AHT Gelditu

MANIFESTAZIOA

MARTXOAK 30 · ALTSASU · 18:00 · SUHILTZAILE PARRIMETIK

HERRIAREN BORONDATEA ERRESPETATU

Mank-en inbertsio nagusia: konpost planta

Sakana eskualde bihurtzeko erabakia hurrengo legegintzaldirako utziko da. Udaberrian martxan jartzea aurreikusten den Berdintasun Zerbitzua estreinakoz Sakanako Mankomunitatearen diru kontuetan agertzen da

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak bere aurrekontuak onartu zituen pasa den astean egindako batzarraren. Ibarreko erakundeak aurten 5.770.001 euro aurrekontua izanen du, joan den urtean baino bi milioi euroko gutxiago. Sakanako Mankomunitateko presidente David Oroz Alonsok azaldu digunez, “inbertsioak jaitzi dira. Joan den urtean 1,5 milioi euroko lanak egin ziren hondakindegian eta beste 0,5ekoa Iribas eta Irurtzun arteko ur ekarria hobetzeko”. Gai nontzekoan, eskaintzen diren zerbitzuak mantentzeko aurrekontuak dira.

Hala ere, bada berritasunik, udaberrian Sakanako Mankomunitateak Nafar Lansareren bidez berdintasun teknikaria kontratatuko duelako. Berarekin batera sortuko da Berdintasun Zerbitzua ibarreko 14 herriri zerbitzua emanen diona, Altsasuk bere arloko teknikaria duelako. Zerbitzu berriaren ekintzetarako 15.000 euroko partida aurreikusi dute.

Sakanako Mankomunitatearen zerbitzuei utsi ahal izateko udalek ibarreko erakundeari pagatu beharrekoa handitu egin da. Alde batetik, aipatutako zerbitzua sortu delako. Eta bestetik, Sakanako Mankomunitateak Sakanako Garapen Agentziarako (SGA) bideratzen zuen dirua 90.000 euro izatetik 100.000 euro izatera pasa delako. Orozek esan digunez, “urte asko generaman SGArako diru ekarpen bera egingen. Aldi berean, Nafarroako Gobernuari inplikazioa eta SGArako diru-partida handitzeko eskatzen ari gara. Igoera horre-

PLAN ESTRATEGIKOA, KOMUNIKAZIO PLANA ETA ERALDAKETA DIGITALEKO PAUSOAK ZEHAZTUKO DITUZTE



Sakandarrak hondakindegian konposta hartzen.

kin gobernuari transmititu nahi diogu gu ere ahalegin bat egingen ari garela. Udalen inplikazioa erakusten du”. Orozek aitortu du gobernuaren ekarpenekin udalen kontuek hobera egin dutela eta SGArako ekarpena egiteko garaia orain zela.

Inbertsioak

Aurten ere inbertsio handiena hondakindegia hartuko du. Konpost planta eraikiko da eta horretara 832.000 euro bideratuko dira. Hondakindegira sartu aurretikezkerrera dagoen larrean egingen da materia organikoa kudeatzeko azpiegitura berria. Orozek azaldu digunez, inbertsioa % 100ean Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planak eta Nafarroako Hondakin Partzuergoak pagatuko dute. Hondakin bilketa Zerbitzuarekin segiz, bilketarako kamioia erosteko 135.000 euro bideratuko ditu Sakanako Mankomunitateak. Bestalde, ibarreko erakundeak erabaki zuen hondakin bilketagatik sakandarrak ordaintzen dugun tasa % 2,4 igotzea, Kontsumorako Prezioen Indizearen igoeraren pare.

Ur Hornidura Zerbitzuak, bestalde, bi herrietako lanetan ur sarea berritzeko lanak ordainduko ditu. Iturmendin Konsistorial, Zirrinkale eta Elizalde kaleetako ur sareak berritzera 56.800 euro bideratuko dira. Eta Urdiainen Kaluxa, Bentalde eta De Felipe kaleetako ur sareak berritzeko 195.000 euro bideratu ditu Sakanako Mankomunitateak.

Plan estrategikoa

Ibarreko erakundeak plan estrategikoa egingen du. Orozek azaldu digunez, “aldiro berritu beha-

rra dago. Non gaude? etorkizuneari zer nahi dugu? Toki Administrazioaren Erreformako Foru Legeak eskualdea bihurtzea ekarriko du. Horregatik guztiagatik plan estrategikoa egiteko une egokia dela uste dugu”. Plan estrategikoarekin batera Mank-ek bere komunikazio plana egin eta eraldaketa digitaleko pausoak zehaztuko dituzte.

Hausnarketa egiten hasiak badira ere, plana egiteko ardura legegintzaldi berriarekin aurreratuak hautetsiek izanen dute. Hau da, irailetik aurrera helduko diote Sakanako Mankomunitatearen plan estrategikoari. Lan hori behar bezala egiteko ibarreko erakundeak 28.000 euro aurreikusi ditu bere aurrekontuetan.

Toki Administrazioaren Erreformako Foru Legea indarrean sartuta, Sakana eskualde bihurtzeko pausoak hasiko dituzten galdetuta, Orozek argitu du egiteko hori legegintzaldi berriarekin batera iritsiko diren hautetsiei utziko dietela.

Emendakina

Aurrekontua onartzeko erabakia aste bat atzeratu zuen Sakanako Mankomunitateak Altsasuk Geroa Baik, Goazen Altsasuk eta PSNk aurrekontuari emendakin bat aurkezteko eskaera egin zutelako, “hura hobetu asmoz”. Altsasuko hiru erakunde politikoek herriko edukiontzien zati bat berritzeko gutxienez 25.000 euro bideratzea proposatu zuten. Dirua diruzaintzako gerakinetik hartzea proposatu zuten. Edukiontzien berrikuntza hainbat urtetan egin behar dela ere gaitzatu zuten.

Altsasuko hiru indar politikotako batzarkide horiek euren eskaera argudiatu zuten esanez

edukiontzia erosi zirenetik ez direla berritu, haietako askoren egoera tamalgarria dela eta eta 2015eko iraileko Altsasuko Udalen txosten bat ekarri zuten gogora, ordutik edukiontzien egoera ez dela hobetu nabarmenduz. “Edukiontzia askoren tapak hautsiak daude, edo ez dituzte, eta, ondorioz, hondakinak kalean botata bukatzen dute”. Udalak arrazoi horregatik altsasuarren kexa ugari jasotzen dituela nabarmendu zuten.

Sakanako Mankomunitateko batzarrak eskaera atzera bota zuen. Horretarako, besteak beste, kontu-hartzaileak txostena egin zuen eta mailegu bidezko finantzaziorik ezin zela egin Aurrekontu Eraginkortasun eta Finantza Jasangarritasun Legegatik. Aurrerago soilik Altsasuko edukiontzia berritzeko 25.000 euroko aurrekontu-aldaketa egiteko konpromisoa eskatu zioten Mank-eko batzarrari Altsasuko hiru indarretako ordezkariak, baina ezezkia eman zieten.

Sakanako Mankomunitateko presidenteak azaldu digunez, urtero edukiontzia berritzeko diru-sail bat dago aurrekontuetan Hondakin Bilketako Zerbitzukoek hala eskatuta. Aurten 8.000 eurokoa da. Presidenteak azaldu duenez, eskatzaileek “ez zuten zehaztu aurrekontuaren zein sailetik kendu behar zen dirua edukiontzietara bideratzeko. Eta kontu-hartzaileak diru-saila handitzea ezinezkoa zela esan zuen”. Sakanako Mankomunitateko Presidenteak gaineratu duenez, “urtearen erdialdetik aurrera dirua bada, ez dago arazorik edukiontzia berritzeko. Batzarrak eskatutako beharrak betetzeko konpromisoa hartu zuen”.

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

sorgiñak
1987

LAKUNTZA
948 578 357

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

50
-
%80
-
10



Guaixe fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 50 euro ordaindu eta 40 euro
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.

2018ko ziurtagiria eskatu:

admin@guaixe.eus edo 948 564 275,

Foru plaza 23, I. solairua, Altsasu





Urbasako jauregiaren argazki zaharra. INDALECIO OJANGUREN

Urbasako jauregia zerrenda gorrian

Hispania Nostra erakundeak eraikina bere ondarearen zerrenda gorrian du, bere egoera okerra delako. XVII. mendeko eraikina gaur egun Nafarroako Gobernuarena da. Han kokatzeko egitasmoak ez dira gauzatu eta egoerak okerrera egin du

SAKANA

Kultura eta natura ondarearen defentsa eta sustapena egiten du Hispania Nostra erakundeak. Ondare hori desagertzeko, suntsitua izateko edo bere balioak nabarmenki aldatuak izateko arriskuan badago, zerrenda gorrian sartzen du. Elkarrekin horrela, ondarearen egoera okerra jakitera eman eta hura mantendu edo zaharberritzeko lortu nahi du. Hori lortuz gero zerrenda berdera pasatzen du. Nafarroan 25 eraikin daude zerrenda gorrian eta horietako bat da Urbasako jauregia. Han sartzeko arrazoiak izan dira utzia egoteagatik hondatuta dagoela eta bandalismoa.

Jauregiak

Fernando Ramirez de Baquedano, II. Andia markesak, aginduta eraiki zen Urbasako jauregia 1699 eta 1705 urteen artean. Ramirezek Urbasa-Andia jurisdikzio zibil eta kriminalaren eskumena zuen. Erreinu fiskalak Errege Kontseiluko Auzi-

tegiari eskatu zion markesari agintzeko etxea eta kartzela eraikitzeko. Jauregia elkar lotuta dauden eta laukia osatzen duten lau gorpu ditu. Lau angeluetan dorre motz bana du eta erdian patio bat dago. Ezkaratza harri landuz egindako arkupe irekia da. Fatxadan Bakedanotarren armari barrokoa dago.

Jauregia jaso eta mende erdia baino lehen berreraiki behar izan zuten, aurrigo egoeran baitzegoen. Bakedanotarrena bi mendez izan zen eta bitarte horretan familia inor ez zen han bizi izan, bai zik eta markesaren etxezainak eta kapilautzako abadea. Urbasa zeharkatzen zutenen, artzainen eta abeltzainen aterpe bihurtu zen.

URBASAKO JAUREGIA, GUTXI GORABEHERA, JOAN DEN MENDEKO 80KO HAMARKADATIK ITXITA DAGO

Jauregia Etxabarririk erosi zuen 1915ean, egurraren sektoreko enpresari olaztiarrak. Hark eraikina eta inguruak eraberritu zituen, zati bat familiarendako utzi zuen eta bestea hostala bihurtuz. Azken hori 1976an itxi zen, nahiz eta aldi batez taberna eta jangela zabalik izan ziren. Eraikina utzia izan zen eta Nafarroako Gobernuak Etxabarritarrei 1990ean erosi zien. Eusko Jaurlaritzak eraikina erosi eta udalekuak egiteko asmoa izan zuen. Jauregia itxita dago eta urteak dira utzita dagoela. Horrek lapurretak (ateak, forjak) eta bandalismoa ekarri ditu.

Eraikina erosi eta gero, han interpretazio gunea sortzeko aukera aztertu eta bertan behera gelditu zen. Aurreko hamarkadaren erdialdera Nafarroako Gobernuak jauregia hotela bihurtzeko proposamena egin zuen (2.980 m² azalera eta 3.390.000 euroko aurrekontua). Baina ez zuen aurrera egin. Gainera, kontrako iritziz ugari zeuden.

Aste Santuan kontziliazioa errazteko udal eskaintza

Txantxari ludotekak 3 eta 12 urte arteko haurrendako Aisiaz blai programa apirilaren 23tik 26ra eskainiko du

ALTSASU

Ikasleen udaberriko oportunitate familia ardurak eta lana bateragarri egiteko 3 eta 12 urte bitarteko haurrendako aisialdi programa prestatu du Txantxari udal ludotekak. Apirilaren 23tik 26ra 08:30etik 13:30era izanen da eskaintza. Hura betetzeko nahikoa izen emate ez bada, 11:00etatik 13:30era arteko eskaintza egingen du ludotekak. Udal eskaintza horretaz baliatu eta umeak eraman nahi dituztenendako izen ematea gaur zabaldu da eta hilaren 29ra arte izanen da zabalik. Horretarako, 012 edo 948 012 012 telefonoetara hots egin daiteke edo www.altsasu.eus web orrira jo.

Txantxari udal ludotekako Joxepi Markinez arduradunak jakinarazi duenez, familien diru-sarreraren, errenta-aitorpenaren arabera hamar prezio



Txantxari ludoteka. ARTXIBOA

ezarri dituzte. Horretarako eskubidea duten familiek hoberiak eskuratzeko aukera izanen dute ere. Argibideak Txantxari udal ludotekan emanen dituzte, 948 467 471 telefonoan edo ludoteka@altsasu.net e-posta helbidean.

ARGALIA

EZKER ABERTZALEARI
EGINDAKO EKARPEN
IDEOLOGIKOA

Andoni OLARIAGA

MARTXOAK 28
19:00
Arbizuko udaletxean
(Kale Nagusia, 7)






Emma Martinez, Olatzagutiko eskolako zuzendaria, jardunaldietan azalpenak ematen. NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUA

Eskolako komunitate ereduaren berri zabaltzen

Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXIII. Jardunaldiak pasa den astean egin ziren eta Olatzagutiko eskolako Emma Martinez zuzendariak ikas-komunitate bihurtzeko emandako pausoak eta lortutako emaitzak azaldu zituen

OLATZAGUTIA

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Jardunaldien astearteko saioan Olatzagutiko Domingo Bados eskola publikoko zuzendari Emma Martinezek parte hartu zuen. Komunitatea eta eskola izan zituen hizpide. Eta horretan Iruñeko Garzia Galdeano eskolako Migel Cosme zuzendariaren eta Komunikas sareko kidearen laguntza izan zuen.

Nafarroako 10 eskola dira Ikas-komunitate, Komunikas sareko kide, Sakanakoak barne. Cosmek azaldu zuenez, “denen ametsa da haur guztiak edozein dela bere egoera soziala, kulturala edo pertsonala, eskubide eta aukera berdinak izatea beraien gaitasun guztiak garatzeko”. Ikas-komunitateak zazpi oinarri ditu: aniztasunean berdintasuna, eraldaketa, elkartasuna, zentzua sortzea, kultura, berdintasunezko elka-

rrizketa eta dimentsio instrumentala.

Cosmek argitu zuen sarea “hausnarketarako, berrikuntzarako, eta ikerkuntzarako sortutako” dela eta helburu duena: “ikaskuntza dialogikoaren eta baita, arrakastatsua diren aktibitateak oinarri zientifikoaren ikerketa eta zabalkuntza. Eta, bestetik, Nafarroan dauden hainbat eskola eraldaketa”.

Olatzagutiko adibidea

Martinezek argitu zuenez, eraldaketa “gizartean diren aldaketek erantzuteko” egin dute:

"INFORMAZIOAREN GIZARTEAN MURGILDUTA GAUDE ETA HORREK ERAGIN ZUZENA DU ESKOLAN"

“informazioaren gizartean murgilduta gaude eta horrek eragin zuzena duelako eskolarekin.

Teknologi berriekin eta mundu guztiak erabili dezakeen informazio guztiarekin, eskolak bere funtzioa birplanteatu behar du”. Martinezek gaineratu zuenez, “fenomeno berri horrek, paradigma soziala aldatzen du eta, dagoeneko, ez da horren garrantzitsua ikasleen artean ematen diren interakzioak, baizik eta hainbat testuinguru edo ingurunetan ematen dena”.

Horretarako eskola Ikas-komunitate bihurtu zen 2016-2017 ikas-turtean. Lehenik, irakasleei, familiei, herriko eta ibarreko hainbat zerbitzuri egitasmoaren berri eman eta haien onarpena jaso zuten. Behin hori eginda, “ametsak fasea” hasi zuten. “Ametsak batzordean” Saka-

nako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuko teknikaria eta kultur bitartekaria, gaztelania irakaslea, herriko kultur teknikaria, orientatzailea, bi guraso, bi ikasle, gela alternatiboko irakaslea eta zuzendaritzako kide batek osatuta.

Aste bat iraun zuen fase horretan olaztiarrek euren ametsak hainbat posta-kutxatan sartzeko aukera izan zuten. Haiak sailkatu ondoren, hainbat gai lantzen zituzten batzorde mistoak sortu ziren. Alde batetik, euskararena, hizkuntzaren erabilera bai eskolan bai eskolatik kanpo sustatzea helburu duena. Batzorde horretan Olatzagutian euskararen alde lan egiten duten hainbat eragile daude.

Arautegi batzordean arautegi komun bat egin dute eta aurki indarrean sartuko da. Arautegi hori komunitateak egin du; familiek, irakasleek eta ikasleek elkarlanean aukeratu dituzte arauak. Inklusio batzordeak, berriz, harrera protokoloa sortu du eta haren bidez Olatzagutira etortzen diren familiei erantzun egokia eman nahi diete. Batzorde horretan udaleko eta mankomunitateetako hainbat eragilek parte hartzen dute, familiendako zerbitzu eskaintzaren berri ematen duena. Azkenik, jaiak eta irteerak daude. Horietan, hainbat familiak eta irakasleek parte hartuko lukete, urtean zehar hainbat ekintza antolatuz. Batzordeak hamabostean behin elkartzen dira. Ez dira finkoak, eskolak edo herriak dituen ametsen araber moldatzen dira”.

Ekintzara

Ondoren “ekintza arrakastatsua etorri ziren”. Horietako bat talde eragileak eta liburutegiak zuzendutako literatura tertuliak dira. 4 urteetatik Haur Hezkuntzako 6. mailara arteko haurrendako eskaintza horretan, banaka, klasikoak diren liburuak irakurtzen dituzte ondoren elkarrekin partekatuz. Martinezek argitu duenez, saio horiek “euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira. Komunitateko edozein pertsona

ESKOLA KOMUNITATEKO ETA KANPOKO ERAGILEEK OSATUTAKO LAU BATZORDE DITUZTE

etorri daiteke tertulietan parte hartzea. Astero izaten dira”.

Talde eragilearen bidez gela berrantolatze modu desberdina landu du: “talde txikietan lan egiten da, boluntario bat dago talde bakoitzean eta hark beraien arteko interakzioak bulkatzen ditu, beti ere, elkartasunean eta kooperazioan oinarrituta”. Bestetik, liburutegiaren Olatzagutira azken bi urtetan etorritako ikasleak egoten dira astelehenetik ostegunera, hizkuntza eta matematika ikaskuntza indartzeko eta “euren ikaskideen maila lor dezaten, inklusioa eta berdintasuna txertatuz”.

Zuzendariak argitu zuenez, “ikasurte honetan familia tertuliak hasi dira. Gure hizkuntza menperatzen ez duten familiek testuak itzuliak dituzte. Horietan familiei gehien arduratzen dien gaiez hitz egiten da”. Albeste idatzi batetik abiatzen dira.

Lorpenak

Lortutakoak nabarmendu zituen Martinezek. Alde batetik, 25 boluntario tertulia eta talde eragileetan parte hartzea. Bestetik, gela alternatiboko ikasleak eta 3 urteko haurrak goizeko lehen orduan elkarrekin elkartzen dira. Horretaz aparte, atsedenaldira elkarrekin dinamika egiten dituzte. Aldi berean, Lehen Hezkuntzako ikasleekin hainbat proiektu lantzen dituzte, esaterako, zentzumen-ipuina sortzea. Gaur egun laguntzak gela barruan ematen dituzte, “inklusio hitzari beste balore bat emanez”.

Eskola komunitatearen ametsak bat bete dela esan zuen Martinezek: 2 urtekoen gela martxan jartzea. “Martxan dagoen bigarren ikasturtea da. “Ezinbestekoa da udalaren parte hartzea, baita familien auzolanak ere”. Zuzendariak lorpen zerrendan gehitu zuen batzorde misto guztietan eskolako eragileak eta familiak daudela, eta haiekin herriko eta mankomunitateetako eragileak ere. Harrera protokoloaren martxan jartzearen garrantzia aipatu zuen. “Azpiegitura bat dugu euskara bultzatzeko, hainbat eragilerekin elkarlanean aritzeko aukera ematen diguna”. Familia olaztiar berrien parte hartze aktiboa ere nabarmendu zuen, bai batzorde mistoetan, bai tertulian, bai talde eragilean.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 22

ALTSASU Gazte agenda. *Nola egin kurrikulum bat tailerra.* 18:30ean, Intxostiapuntan.

IRURTZUN *Nosotras las mujeres de Euskalduna* dokumentalaren proiektzioa. **IAGAK** antolatuta. 19:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Ines Bengoa ipuin kontalariaren *Berdintasuna maite dugulako* ipuina. 18:00etan, liburutegian.

LAKUNTZA *Memoria* erakusketaren aurkezpena. 19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. **Kontzentrazioa.** 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

URDIAIN *Badut* ipuin musikatuak. 19:00etan, herrientzeko auzoan.

HIRIBERRI ARAKIL *Cuatro sillas para tres* antzezlan. 20:00etan, elkartean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Destroyer. Una mujer herida* gaurkotasunezko filma. 22:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI *La que hemos liado* Bocabeats konpainiaren komediaren emanaldia. 22:30etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Kop eta Alerta Gorria taldeen kontzertua. 23:00etan, Gaztetxean.

LARUNBATA 23

LAKUNTZA Aiako harrietara irteera eta sagardotegia. 08:00etan, plazan.

IZURDIAGA Zuhaitzaren eguna. 10:30etik aurrera, futbol zelaian.

ALTSASU Maravillasen kasuaren harira Sakanako lanketa egiteko asanblada irekia. 11:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda. Iruñeko **Salting-era** bidaia. 14:00etatik 18:00etara, autobus geltokitik.

ALTSASU Eginoko Basotxo eta Ilarduiako Gentilen

lezeetara irteera. **Altsasuko Mendigoizaleak.** 15:00etan, egoitzatik.

LAKUNTZA Memoriaren inguruko jardunaldia. *La gran fuga de Ezkaba* dokumentalaren proiektzioa egileen eskutik. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Oua Umpate, el funeral* Cia. Che y Moche konpainiaren ikuskizuna. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Enzisk 2 bertsio taldearen kontzertua. 22:30etan, gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Los del Rayo taldearen Rock and roll kontzertua. 23:30etan, Iturrieder tabernan.

IGANDEA 24

OLAZTI Iruñeko Oberena abesbatzaren kontzertua. 12:15ean, San Miguel elizan.

ALTSASU *The rock and kids band* haurrendako ikuskizuna. 17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda. **Tekken7** txapelketa. 17:30ean, Intxostiapuntan.

ZORION AGURRAK



Igor Artieda
ZORIONAK IGOR!!
Disfrutatu zure egun berezia, gu zure ondoan egongo gara. Ea oparia gustatzen zaizun! Muxu haundi bat. Ebekoak



Amama
ZORIONAK AMAMA!!
Zerbaki borobila bete duzu!! Disfrutatu eguna merezi duzun moduan. Asko maite zaitugu. Zure familia



ALTSASU *Destroyer. Una mujer herida* gaurkotasunezko filma. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Border* zineforum filmaren emanaldia. 19:40etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 25

ALTSASU Pentsio duinen alde. **Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak** deitutako elkarretaratzea. 12:00ean, Udaletxe parean.

ASTEARTEA 26

ALTSASU Altsasuko musika eskolako ikasleen emanaldia.

18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Ikasle Abertzaleen sorrera hitzaldia.* Hizlaria: **Ikasle Abertzaleak-eko kide ohia.** 18:00etan, gaztetxean.

ALTSASU *Un tejado a dos aguas* liburuaren aurkezpena **Oscar Galladro** idazlearekin. 19:00etan, Haritza tabernan.

ETXARRI ARANATZ *Birjiñe* Albira ipuin kontalariak Japonia ipuinaren kontakizuna eginen du. 17:30ean, liburutegian.

OSTEGUNA 28

ALTSASU *La mujer de la montaña* gaurkotasunezko filma. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *La noche de los 12 años* zineforum emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.



IRURTZUN Pintura tailerraren *Inspirazioak* margotzen harrapatu behar zaitu erakusketa. **Pikuxarren.**



LAKUNTZA *Memoria* erakusketa. **Martxoaren 22tik 31ra.** Kultur etxean.



LORTIA KULTURA

ALTSASU Lehengo jostailuak erakusketa. **Martxoaren 31a arte.** Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortian.



ALTSASU Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. **Guaixeren 25. urteurrena.** Martxoaren 11tik 29ra arte. Astelehenetik ostiralera 15:00etatik 21:00etara, liburutegian.



UTZITAKOA

ALTSASU. *Adela Sanchez* eta **A. Arrizabalagaren** erakusketa. **Apirilaren 15a arte.** Asteartetik ostiralera 16:00etatik 21:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 18:00etara, Dantzaleku tabernan.



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU** • Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



OROIGARRIA



Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea


III. urteurrena



Joan zinen gu hemen utzita, baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.

Bakaikuko zure ehiztari kuadrila

OROIGARRIA



Jaime Celaya Auzmendi

III. urteurrena

Hiru urte pasa dira gure ondotik joan zinela baina beti gure bihotzetan eraman zaitugu!!!

Etxekuek
Bakaiku, martxoaren 26ean.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€/130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI-ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Maddi eta Arhane Lakuntza Iriarte**, martxoaren 11n Etxarri Aranatz
- **Joel Dos Anjos Dos Anjos**, martxoaren 11n Altsasun

EZKONTZAK

- **Anna Carolina Lovatti eta Pedro Jose Barriga Rodriguez**, martxoaren 15ean Bakaikun

HERIOTZAK

- **Miguel Luis Ezkerra**, martxoaren 19an Bakaikun
- **Jose Maria Huarte Elordi**, martxoaren 19an Uharte Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK
LAN ESKAINTZA
Arbizu: estetizista autonomo baten bila nabil.
Buxek ilepaindegiaren barruan daukadan gela alokatuko nioke. Fernando Urkia, 1. Arbizu. Interesatuek deitu 663 540 272.

IKASTAROK
Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilgunea zerbitzuaren ikastaroak: Erabili mobila heldabide moduan (taldeak adostuko du egutegia), Zaindu ezazu zeure burua (marxoak 21, 28, apirilak 4, 11 10:00-11:30 edo 18:30-20:00), Autodefentsa feminista apirilak 6, 9:00-14:00 / 15:00-18:00. Ikastaro bakoitzak 12,50. Izen ematea: 948 564 823/ 948 468 343 tinoetan, Gure-etxean edo berdintasuna@altsasu.net emailen. Ichiaketak

GAZTEWOOD Altsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK
Ikasle eguneko bazkaria: Sakanako Ikasle Abertzaleak ibarreko eguna ospatuko du martxoaren 30ean Altsasun. Antolatuta den bazkarirako bartelak 10 eurotan Lakuntzako Sorginak, Etxarri Aranazko Xapatere eta Altsasuko Lezea eta Biltoki tabernetan eskura daitezke.

Etxarriko irakurle taldea: apirilaren 11n, ostegunetan, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko dira eta Alberto Ladronen "Arotzaren eskuak" liburua izanen dute hizketagai. Gonbidatuta zaude.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arba-zuarraren erronkan parte hartzera gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabarraino mendilerketa eta gazta trukaketa Bideak dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzen ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun

izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilera.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosejosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

www.iragarkilaburak





Nabarmendu zure iragarkia
Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia
Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 22	Larunbata, 23	Igandea, 24	Astelehena, 25
 Min. 2° Max. 17°	 Min. 6° Max. 21°	 Min. 6° Max. 18°	 Min. 5° Max. 11°
Goizean lainoa sor daiteke bailaran, baina egunak aurrera egin ahala, eguzkia agertzen joanen da temperaturen gorakada ekarriz.	Larunbatean eguzkiarekin jarraituko dugu. Goizean hotza egingo du, baina eguzkiaren ondorioz	Ipar haizeak ez dio eguzkiari gehiegi berotzen utziko, baina eguraldi polita izango dugu Altsasuko kaleetatik ibiltzeko.	Fronte txiki batek hodeiak ekarriko dizkigu, baina ez da euri arrastorik egongo. Ipar haizearekin jarraituko dugunez, hotz egingo du.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Aurreko urteko martxa.

Altsasuko Hiru Mendizerrak martxan izena ematea zabalik

MENDIA Apirilaren 6an izanen da eta Altsasuko Mendigoizaleen web gunean egin behar da

Mendizaleek hitzordu garrantzitsua dute apirilaren 6an, egun horretako goizeko 7:00etan abiatuko baita Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako mendi martxa, XII. Hiru Mendizerrak 2019 martxa hain zuzen ere. Altsasun hasi eta despedituko den proba ez lehiakorra da eta Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Federazioen Ibilaldi Luzeen Mendi Martxen egutegien barruan dago.

Hiru Mendizerran hiru ibilbide egiteko aukera izango dute mendizaleek: Luzea (48 km, 2.700 m desnibel +), Laburra (26 km, 1.200 m desnibel +) eta Ertaina (1.500 m desnibel +). Ibilbidean barna 6 kontrol eta hornidura gune izango dira, Gure Etxean, Urbanan, Ziordian, Sorozarretan, Saraben eta Gure Etxean.

Izena emateko

Altsasuko Hiru Mendizerrak mendi martxarako izena ematea zabalik dago eta ondoko web gunean egin daiteke: www.altsasukomendigoizaleak.com, www.zirkuitua.com eta www.mendizmendi.com. Prezioa 15 eurokoa da. Dortsalak apirilaren 5ean edo apirilaren 6an jasoko dituzte mendizaleek. Antolakuntzak gehienez 700 partaide onartuko ditu.

"Txapelketa honetan ez dago faboritorik"

JOSE JAVIER ZABALETA PILOTARIA

PILOTA Binakako finalerako sailkatu dira Zabaleta eta Iribarria. Etxarrengo atzelariak oso argi du Binakakoa bezalako txapelketa luzeetan ez dagoela faboritorik

Maidar Betelu ETXARREN

Zorionak Jose, Iribarriarekin finalerako sailkatzeagatik.

Eskerrik asko. Orain lasai nago; finalera sailkatuta, lehenengo helburua lortuta dugu. Egia esan, pozik eta lasai.

Aurkezpen egunetik Binakakoa irabazteko faboritoen artean zeundeten Iribarria eta zu.

Nik hori ez dut inoiz pentsatu. Txapelketa horren luze batean edozer gauza gerta daiteke, lesioen bat, zure une onenean ez egotea... Ez dut inor faborito ikusten txapelketa luze hauetan. Hasieratik hasi behar da ongi, finalerdietara sailkatzeko, eta gero, finalerdietan, akats gutxi egin ditzakezu, bestela finalik gabe gelditzen zara.

Hortaz, Simeonek dioen bezala, partidaz-partida joan behar da.

Beno... (kar kar) nik ez dut Simeone gustuko, baina bai, hala izan behar da. Astero astero partida ongi prestatu, ahalik eta hobekien jokatzeko saiatu...

Binakakoa erresistentzia handiko txapelketa da: hasierako ligaxkan 14 partida jokatzeko dira, finalerdietara sailkatuz gero beste hiru partida eta finalera sailkatuz gero, azkena.

Sistema honekin denetarik ikusi da. Gogoan dut 2012an Olaizolak eta Beroizek hasierako ligaxkanako partida guztiak irabazi zituztela, 14 partidak, gero finalerdietako lehen jardunaldia irabazi zutela, baina finalerdietako azken bi partidak galdu eta gero, finaletik kanpo geratu zirela. Hemen, lehenengo 14 partidatan ongi egon behar duzu finalerdietarako sailkatzeko, baina finalerdietan huts egiteko tarte gutxi dago eta partida onak egiteko prest egon behar duzu. **Igandean ikusgarri aritu zineten, a ze joa! Elezkano eta Rezusta 12 tantotan utzi zenituzten. Dena den, partida lehiatuagoa espero zen.**

Nik partida bukaera arte partida zailagoa izatea espero nuen. Ha-



Jose Javier Zabaletak "pozik eta lasai" dagoela aitortu digu. ASPE

"ARAKILDARRENDAKO POLITA LITZATEKE HALAKO FINAL GARRANTZITSU BAT JULENEKIN JOKATZEA"

siera ona izan zuten Elezkanok eta Rezustak, baina gero pixkat partidatik atera zirela uste dut. Iribarria handi bat ikusi genuen, txapelketa honetan partida ona egin zuen, eta horregatik ere emaitza hori.

Bihar, larunbatean, finalerdietako 3. jardunaldian, Labriten, Victor eta Albisu izango dituzue arerio. Txapelketari begira ez dago ezer jokoan, beraiek kanpo daudelako; hortaz, lasaiago joango zarete partidara? Guk astea berdinean prestatu dugu, normal. Txapelketari begira igual ez dago ezer jokoan, baina gu beti irabaztera ateratzen gara kantxara, galdu egiten baduzu etxera burumakur eta gaizki zoazelako. Partida ona egitera eta irabaztera aterako gara, finalera konfiantzarekin joateko, lasaiago.

Zure ibilbideko une onenarike batean zaudela dirudi.

Gustura sentitzen naiz, fisiko aldetik, eskutatik... Frontoian jokoarekin ratxak izaten dira, igual aste batzuk hobeto jokatzeko duzu, eta beste batzutan ez zaudete holako konfiantzarekin. Baina azkenaldi honetan nahiko konstante ari naiz izaten eta hori ona da. Lesioek ere errespetatu naut; txapelketa guztietan nahiko suerte izan dut, eskutik ongi ibili naiz eta ea horrela segitzen dugun.

Finaleko zuen arerioak Altuna-Martija edo Elezkano-Rezusta izango dira. Nor uste duzu sailkatuko dela finalerako?

Bientzat zaila izango da irabaztea. Oso parekatutako partida aurreikusten dut, gogorra, eta irabazten duenak uste dut justu-justu irabaziko duela. Igual momentu honetan, aurreko asteburuan ikusitako partidaren ondoren, akaso pixkat faboritoago ikusten ditut Altuna eta Martija, baina edozer gauza gerta daiteke eta uste dut partida polita ikusiko dugula igandean Donostian.

Norekin nahiko zenuke finala jokatzeko, edo berdinean zaizuzu?

Hori berdinean zaigu. Azkenean tokatzen denaren kontra irabaz-

tera aterako gara, berdinean du noren kontra.

Sakandarrendako polita litzateke finalean bi sakandar egotea, zu eta Martija, baina hala izanda Arakil aldean askok bihotza erdibituta izango lukete...

Seguro, baina polita litzateke; Etxeberri eta Etxarren oso hurbil daude eta Julen eta biok lagun handiak gara. Halako final garrantzitsu bat hemengo bi pilotarik jokatzeko oso polita litzateke hemengo jendearendako.

Gainera, txapela Sakanan geratzea ziurtatuko genuke...

Bai, alde horretatik bai (kar kar), Arakilen geratuko zen txapela. Polita litzateke Julenen kontra halako partida bat jokatzeko.

Finalista zaren aldetik hasi dira ingurukoak mugitzen eta sarrerak eskatzen?

Oraindik ez. Hiru aste gelditzen dira finalerako. Lehenengo ikusi beharko da noren kontra tokatzen zaigun final hori jokatzeko, eta uste dut hurrengo astetik aurrera hasiko dela jendea gehiago mugitzen eta antolatzen. Sarrera kontuekin ama ibili izan da, eta normalean berak banatzen ditu. Jakina da ezin dira denondako sarrerak lortu, baina nirekin beti egoten diren pertsonak, hurbilekoak, horiek bai sarrera izango dutela.

Dena ongi joan dadila. Zortea opa dizugu biharko eta finalerako! Milesker!

Beste bikote finalista, nor?

Altunak eta Martijak igandean Donostian Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra jokatu duten hil hala biziko partidatik aterako da Binakako Txapelketako beste bikote finalista. Altuna eta Martija Victor eta Albisu 22 eta 19 irabaztetik datoz, animoak goian, eta Zabaletaren eta Iribarriaren kontra gaitzetik datoz, aldiz, Elezkano eta Rezusta. Ez dago faborito argirik, baina Altuna eta Martija presiopean ongi moldatzen dira eta hori alde izango dute.

Igor Arrieta Gorlan eta Altsasun garaile

TXIRRINDULARITZA Asteburuan bi lasterketa jokatu zituen Sakana Group-Aralar taldeko txirrindulariak eta bietan gailendu zen Uharteko Arakilgoa, Gorlako Igoeran eta Altsasuko Udaberriko Sarian. Junior mailan primerako debuta egin du

Asteburu borobila izan da hau Sakana Group-Aralar txirrindularitza talde lakuntzarrarendako. Jubeniletan, larunbatean Gazteen I. Gorlako Igoera jokatu zen Bergaran eta talde horretako Igor Arrieta Lizarragak sekulako erakustaldia eman zuen, garaipen itzela lortuaz (20:29). Uharteko Arakilgo txirrindulariak 46 segundo atera zizkion Ampo taldeko Enekoitz Azparreni eta Bellota taldeko Xabier Isasari. Horrela, denboraldi honetako bere lehen-dabiziko garaipena lortu zuen Arrietak eta bere taldeko Sakana Group-Aralar klubeko bigarren garaipena, martxoa hasieran Aitor Alberdik Villatuertan lortutakoari jarraiki.

Udaberriko Saria Altsasun

Hurrengo egunean, igandean, Burunda Txirrindularitza Talde sakandarrak Altsasun antolatutako XXXIV. Udaberri Saria jokatu zen, 80 km-ko proba.

Altamira hiru aldiz gaintitu behar izan zuten irteera hartu zuten 142 txirrindulariek eta haietatik soilik 69k lortu zuten helmugara iristea, euria eta eguraldi kaxkarra tarteko. Gogorra den proba are gogorragoa bilakatu zuen eguraldiak. Bezperan Gorlan azkarrena izan eta gero, Igor Arrieta bikain aritu zen eta berak lortu zuen proba irabaztea, helmugara bakar-bakarrik iritsita (1:53:55). Sakana Group-Aralar taldeko bere taldekide Aitor Alberdi arbizuarra bigarrena sartu zen, 25 segundora, eta Bellota taldeko Xabier Isasa hirugarrena, 29 segundora.

Altsasuko proba irabazteaz gain, Ziordian erabakitako tarteko helmugan saria eta mendiko saria irabazi zituen Igor Arrietak. Aurten kategoria estreinatzen duen denboraldi honetan, kadeetatik jubeniletara pasa baita, zeresana emango du txirrindulari uhartearrak, bide honetatik



Altsasuko podiuma: Igor Arrieta, Aitor Alberdi eta Xabier Isasa. SAKANA GROUP-ARALAR

PROBA IRABAZTEAZ GAIN, MENDIKO ETA TARTEKAKO HELMUGEN SARIAK IRABAZI ZITUEN

jarraitzen badu behintzat. Taldeen artean Ekin-Amorebieta izan zen onena.

Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Burundako Quesos Albeniz taldeko Unai Aznar 10.a sailkatu zen, Iker Mintegi 14.a eta Diego Gonzalo 56.a. Sakana Group-Aralar taldeko Mikel Lizasoain 59.a sartu zen eta bere taldekide Inhar Astitz 62.a. Larunbatean Euskal Herriko Torneorako baliagarria den Monteagudo Trofeoa dute jokoan juniorrek, 11:30ean (85 km).

Maialen Aramendia Emakumeen Gorlako Igoeran

Larunbatean Emakumezkoen Euskaldun Torneorako baliagarria den Gorlako Igoera jokatu zen Bergaran, junior, elite eta 23 urtez azpiko emakumeendako. Elite mailan Movistar Team taldeko Eider Merino gailendu zen

1:58:17, helmugara bakar-bakarrik heldu eta Bizkaia Durangoko Nicole D'Agostiniri 25 segundo atera eta gero. Aurten Murias-Limousin taldean dabilen Maialen Aramendia 35.a sailkatu zen, 11:35era. Larunbatean Emakumezkoen Tolosako VI. Saria izango dute jokoan, 15:00etan (116,6 km).

Eneko Aramendia Aiztondo Klasikoan

Igandean Espainiako Koparako baliagarria den XVI. Aiztondo Klasikoa jokatu zen Billaona-Adunan (131,5 km). Lasterketa luze, ero eta gogorrean, Gomur-Cantabria Infinita taldeko Angel Fuentes izan zen garailea (3:15:45). Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Sergio Roman bosgarrena sailkatu zen, 8 segundora, eta Eneko Aramendia iturmendierra (Goierriko TB-Laboral Kutxa) 69.a, 12:44ra.

Afizionatuek larunbatean Lehendakari Txapelketarako baliagarria den lasterketa dute Laukizen, 10:00etan (129 km), eta igandean XLII. Cirilo Zunzarren Memoriala jokatu dute, 10:00etan (134 km).

FUTBOL PREFERENTEA

22. JARDUNALDIKO EMAITZA
Mutilbera - Etxarri Aranatz 2-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Lagunak	44
12	Etxarri Aranatz	26

IMQ KOPAKO PARTIDA

IGANDEAN
19:00 Mutilbera - Etxarri (Mutiloa)

Etxarri Mutilberaren kontra ezin

Etxarri Aranatzek eta Mutilberak arerio zuzenen arteko partida jokatu zuten Mutiloan, behe postuetatik irteteko bi taldeen arteko lehia. Horrela, intentsitate handiko partida izan zen. Mutilberak gola sartu zuen eta lehen zatian Etxarri ez zuen arrisku gehiegirik sortu Mutilberako atean. Bigarren zatian hobe aritu ziren bi taldeak, baina baloiak ez zuen kontrako atean sartu nahi izan. 85. minutuan, Mutilberak bigarren gola sartu zuen eta horrela despeditu zen partida.

Etxarri IMQ Kopatik kanpo

San Jose egunean IMQ Kopako final laurdenak jokatu ziren. Etxarri Aranatzek Lagunak taldea hartu zuen eta lehen zatian parez pare ibili ziren bi taldeak, baina atsedendira 1 eta 3ko abantailarekin joan ziren Barañaingoak. Erdoziak sartu zuen Etxarriko gola. Bigarren zatian Etxarri gogoz saiatu zen, baina baloiak ez zuen sartu egin nahi. Sanchezek Lagunak enaugarrena sartu zuen eta Goikoetxeak Etxarrikoen bigarrena, baina markagailua ez zen mugitu eta 2 eta 4 galduta, Etxarri final laurdenetan agur esan behar izan dio IMQ Kopari.

PILOTA Altsasuko V. Bikotekako Goxua Txapelketako partidak

Ostiralean eta igandean Altsasuko V. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako jardunaldia jokatu da. Gaur, ostiralean, 20:30etik aurrera, 2. mailan, Mendoza eta Mendoza Ieregi eta Iregiren kontra ariko dira eta banaka Urriozola Abregoren kontra eta Gelbentzu II.a Senarren kontra.

Igandean, 17:00etik aurrera, Amaratarrak Urjiko eta Claverren kontra jokatu dute; banaka Sueskun Satrusen kontra ariko da; 1. mailan Mazkieran eta Alustizak Zornoza eta Floresen kontra jokatu dute eta 2. mailan Povedatarrak Calleiras eta Merchanen kontra.

FUTBOL ERREGIONALA

2. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lagun Artea - Altsasu 4-0

SAILKAPENA

IGOERA FASEKO A. MULTZOA

1	Lagunak B	6
2	Lagun Artea	6
8	Altsasu	0

IGOERA FASEKO 2. JARDUNDALDIA

IGANDEAN
17:15 Urroztarra - Lagun Artea (Urrotz)
17:00 Altsasu - Amaya (Dantzaleku)

Derbiko puntuak Lakuntzan Igandean erregional mailako igoera faseko 2. jardunaldia jokatu zen eta Lagun Arteak eta Altsasuk derbia jokatu zuten Lakuntzan. Ikusmina handia zen, eta bi taldeko zaleak bildu ziren Zelai Berri futbol zelaietan.

Arratsalde hotzean, Lagun Artea hobeto aritu zen eta lehen zatian Egurzak sartutako bi golekin 2 goleko errentarekin joan ziren atsedendira lakuntzarrak. Altsasu jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen eta hortik aurrera Lagun Artearen nagusitasuna handiagoa izan zen. Unai eta Davilak beste bi gol sartu zituzten eta bi talde sakandarren arteko derbian 4 eta 0 irabazi zion Lagun Arteak Altsasuri.

Erregional mailako igoera faseko A multzoko liderra Lagunak B taldea da (6 puntu) eta Lagun Artea bigarrena da, puntu berekin. Altsasu zortzigarrena da, punturik gabe. Asteburuan sailkapenean laugarrena den Urroztarren kontra ariko da Lagun Artea Urrotzen eta Altsasuk zazpigarrena den Amaia hartuko du igandean Dantzalekun. Igoera fasean aurrera egiteko puntuak pilatzen hasi beharko du Altsasuk.

EMAKUM. ERREGIONALA

25. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Osasuna - Altsasu 0-3

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna Fundazioa	70
13	Altsasu	22

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
14:30 Altsasu - Itaroa (Dantzaleku)

Altsasuk ezin izan zuten liderra mendean hartu

Altsasuko neskek Taxoaren jokatu zuten asteburuan, denboraldi bikaina egiten ari den Osasuna Fundazioa liderraren kontra. Altsasuarrak saiatu ziren, baina ezin izan zuten Osasunaren atea zultatu. Bihar, sailkapenean Osasuna liderretik 3 puntura dagoen Uharteko Itaroa taldea hartuko dute altsasuarrak, beste partida zaila gure jokalarientzako.

Bargagain, Nafarroako 2018ko klubik onena

TAEKWONDOA Nafarroako Taekwondo Federazioak Bargagain 2018ko Nafarroako taekwondo klub onena izendatu zuen larunbatean Gorraizen. Bargagaingo Moreno, Gil, Irigoien eta Palomares Sofian daude WTE Multi-European txapelketan

Altsasuko Bargagain Taekwondo klubak krisialdi bat pasa zuen duela lauazpabost urte, baina aurrera egin eta taldea indartzeko erabakia hartu zuten, eta helburua bete dute, alde handiarekin gainera. Gerardo Montero irakasleak hartu zuen eskolaren ardura eta urtetik urtera neska-mutiko gehiago hurbiltzen dira Bargagain klubera taekwondoan trebatzera. Lehiaketetan eta txapelketetan ere maila itzela ematen dute. Horren erakusgarri, Nafarroako Taekwondo Federazioak 2018ko klub onenaren saria eman zion Bargagain klubari larunbatean Gorraizen egindako ekitaldian. "Oso pozik hartu genuen saria, egiten dugun lanari aitortza da; federazioak gure klubua onena aukeratzea sekulakoa da guretako" adierazi digu Bargagain klubeko juntako Beatriz Fernandez Santanok. Bestalde, Bargagaingo Erkuden Morenori aipamen berezia egin zioten 16 urtetik beherako taekwondolari onena izateagatik. Beraz, sari bikoitza klubarendako.

Altsasun eta Olaztin

Bargagain Taekwondo Taldearen barruan 100 taekwondolari inguru trebatzen dira Altsasun, Gerardo Montero irakaslearekin.

SASKIBALOIA CBASKek Liceo Monjardin hartuko du bihar

Autonomia Arteko 2. mailan 21. jardunaldia jokatu zen asteburuan. Altsasuko CBASK saskibaloia taldea Aranguren Mutilbasket taldearen kontra aritu zen, eta partida lehiatuan 76 eta 52 gailendu ziren Arangurengoak. Bestalde, atzeratutako jardunaldia jokatu zuten Larraona taldeak eta CBASKek, eta 97 eta 64 irabazi zuten Larraonak.

Horretaz gain, aurten taldea sortu dute Olaztin. 20-25 gazte inguru trebatzen dira Olaztin Saioa Marroyo irakaslearen esanetara. "Kluba gehiago zabaltzea da gure asmoa" gaineratu du Fernandezek.

Moreno, Gil, Irigoien eta Palomares Sofian, WTE Multi European txapelketan

Bargagain klubeko lau taekwondolari Sofian daude, WTE Multi European txapelketan parte aritzeko. Txapelketa hau puntakoa da, Europako Txapelketa-tarako eta Gazte Joko Olinpikoetarako sailkapen-txapelketa. Oihane Palomaresek 21 urtez azpiko mailan hartu zuen parte atzo, Erkuden Moreno kadete mailan lehiatuko da gaur eta Ane Gil eta Irati Irigoien juniorrak bihar, larunbatean lehiatuko dira. Bargagain kluba ordezkatzeko dute laurek eta Gerardo Montero irakaslearekin daude Bulgarian.

"Txapelketa honetako maila oso altua da. Gure taekwondolariak gogotsu daude eta nahiz eta arerioak ez ezagutu, maila ona emango dugula espero dugu. Etxetik atera eta kanpoan dagoena ikustea esperientzia bikaina izango da eurendako" nabarmendu du Fernandezek.

Autonomia Arteko 2. mailako lehen faseko liderra Ceniceru La Alcoholera taldea da (34 puntu). Bi porroten ondoren, CBASKek postu bat behera egin du eta 9.a da sailkapenean (25 puntu). Larunbatean Altsasuko taldeak sailkapenean zortzigarrena den eta 26 puntu dituen Fonseca Liceo Monjardin taldea hartuko du Zelandi kiroldegian, 18:00etan hasiko den partidari. Hau izango da Autonomien Arteko 2. mailako lehen faseko azken jardunaldia.



Bargagaingoak klubeko saria eta Morenoren izendapena ospatzen. BARGAGAIN




Gure ikasleen ahotan

Bingen Galartza Iparragirre (20 urte, Urdiain)
Informatikako Ingeniaritza graduko 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean, Arrasaten.



"Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera emateaz gain, lan-munduan zer behar dauden ikusi dezakegu formazio dualari esker"

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia? Oso esperientzia positiboa izan da orain arte. Sartu nintzenean asko gustatzen zitzaidan informatika, eta hiru urte hauen ondoren, lehen baina gehiago gustatzen zait. Gauza asko eta oso interesgarriak ikasi ditudala iruditzen zait.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Bi gauza nabarmenduko nituzke bereziki: batetik, proiektu bidezko sistema dela azpimarratuko nuke. Sei hilko bakoitzaren amaieran, klaseak eten eta proiektu bat egiten dugu klasean ikasitako guztia praktikan jartzeko. Eta proiektuaregitean klasean landu ez ditugun hainbat gauza ere ikasten ditugu geure kabuz. Horrek aukera ematen digu ikasgai guztiak elkarri lotuta daudela ikusteko. Bestetik, ebaluazio jarraitua nabarmenduko nuke. Gaiak bukatu ahal, horien azterketa egiten dugu, klasean landutakoa behar bezala barneratu dugun ikusteko.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko? Lehen esan dudana bezala, metodologia nabarmenduko nuke gehien, eta horretaz gain, eskolaz kanpoko ekintzak ere oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Adibidez, ni Maker taldean nago, eta bertan, gradu desberdine-

tako ikasle batzuk elkartu gara proiektu teknologikoak aurrera eramateko. Argi eta garbi dut zer hobetu behar duen unibertsitateak: ikasketa-planean euskaraz eskaintzen diren ikasgai guztiak euskaraz izatea (ez da beti horrela izaten).

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu? Oñatiko Magnet kooperatiban nabil lanean. Magnetek web-aplikazioak egiten ditu. Ezin gusturago nabil bertan oso jarrera aurrerakoia baitu lan egiteko moduari nahiz erabiltzen duen teknologiarri dagokienez. Oso giro ona dago gure artean, eta lana oso interesgarria iruditzen zait.

Zer nolako ekarpena egiten dizu formazio dualak? Unibertsitatean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera emateaz gain, lan-munduan zer behar dauden ikusi dezakegu eredu dualari esker. Gainera, ikasleoi oso ondo datorkigu ordaintzen diguten dirua graduko gastuei aurre egin ahal izateko. Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak? Oraindik ez daukat oso argi zer egingo dudan gradua amaitzen dudanean, baina badakit ikasten jarraitu behar duzala informatikan aldatetako egun batetik bestera gertatzen baitira, eta egunean egoteko ezinbestekoa da prestatzen jarraitzea.

www.mondragon.edu/prest



Zumbathoiaren parte-hartzaileak, gustora dantza solidarioan.

Arbizuko Zumbathoia: arrakastatsua, solidarioa eta hunkigarria

ZUMBA Arbizuko kiroldegia III. Arbizuko Zumbathon solidarioa hartu zuen, Perthesa duten familien elkartearen (Asfape) aldekoa. Herri lasterketa solidarioarako 178 dortsal saldu ziren eta zumbathonerako 644 sarrera. Antolatzaileak "oso pozik" daude

Igandean III. Arbizuko Zumbathon solidarioa jokatu zen, Perthesa duten familien elkartearen (Asfape) aldekoa. Lehenik eta behin, goizeko 10:00etan, Arbizuko haur lasterketa solidarioa jokatu zen eta, ondoren, 11:00etan, zumbathon solidarioa hasi zen. Arbizuko pilotalekua bete egin zen ekimen solidario honi babesa emateko eta antolatzaileak eta antolakuntzan ere buru-belarri ibili diren Asfape elkarteko familia sakandarrak oso eskertuta eta hunkituta daude ekimenak izan duen jarraipenarekin.

Asfapeko Estitxu Ruizek balorazioa egin zuen Belexe irradian (107.3 FM). "Oso oso pozik gaude, oso eskertuta hurbildu zen jende pilarekin eta hurbildu izan ez zirenekin ere, askok ezin izan baitzuten joan baina beraien animoak eta laguntza iritsi zai-

gulako. Asfape elkartearendako zen jaialdian bildutako dirua, batez ere ikerketarako eta elkarteak bere ekimenak bideratzeko, famili-topaketak eta hainbat materialen gastua ordaintzeko" adierazi zuen.

Hiart Leitzak eta Anabel Arrizak aurkeztu zuten ekitaldia eta Carolina, Ainhoa, Maria, Itziar eta Mayra monitoreek prestatutako koreografie jarraiki zumbathon solidarioan aritu zirenak, primerako giroan. Ainara eta Charles ere gonbidatuak egon ziren ekitaldira. Ezkurdia eta Irujo pilotariak ekimena babestu zuten eta hainbat zozketa egin ziren: Ezkurdia eta Irujo pilotarien kamisetak, Xota eta Lagun Artea taldeen kamisetak, Osasunako produktuak, hainbat produkturen loteak... eta abar.

Lasterketarako 178 dortsal eta zumbathonerako 644 sarrera Eguraldia ere ongi portatu zen. "Goizeko 09:30ean lasterketarako dortsalak saltzen hasi ginen, eta dortsalak eskuratu ahala argazkia egiten genien korrikalariei. Dortsal bakoitzean perthesa duen umeren baten izena idatzita zegoen, eta egunotan argazkiak bidaliko dizkiegu ume horiei, ikus dezaten beraien orde zozketa egin zuela jendeak. Ez zuen euririk egin eta 10:00etan puntuan lasterketari ekin genion. Lakuntzako txirringulariek koitxea utzi ziguten eta han igota,

"GURETAKO OSO ESPERIENTZIA POLITA, HUNKIGARRIA ETA POZGARRIA IZAN DA HAU"

megafonia eta musika jarri eta Arbizun bueltatxo bat eman genuen. Bakoitzak bere martxan jarraitu zuen lasterketa, batzuk gure alboan, korrika, eta beste batzuk oinez, patinetetan, bizikletan... jende pila bat hurbildu zen, eta bukaeran txokolata banatu genuen, pasta eta bizkotxoekin" gaineratu zuen Ruizek.

Ruizek aipatu zuenez, herri lasterketarako 178 dortsal saldu zituzten. "Sakanako jendeaz gain perthesa duten familiak hurbildu ziren, Gernikatik, Aldatik, Iruñatik...". Eta ondoren hasi zen Zumbathon solidarioa. "Guztira 644 sarrera saldu genituen zumbathoirako. Primerako giroa egon zen kiroldegian, oso giro polita, alaitasuna, laguntasuna... Bukaeran, perthes gaitza dugun familiei omenalditxo bat egin ziguten, aurreku bat dantzatu ziguten eta inguruan Irujo eta Ezkurdia ere bazeuden... Buka-

tzeko, Arbizuko elkartearen bildu ginen bazkaltzera, eta perthesa duten haurren familien arteko topaketatxo bat egin genuen, elkar animatu eta esperientziak partekatzeko" gaineratu zuen Ruizek. Sakanan perthesa duten bi neska-mutikoak, Oihan eta Oihane, oso gustura egon zirela nabarmendu zuen Ruizek. "Zozketetako sariak banatu zituzten eta zenbakiak atera ere. 13 sariak banatu zituzten Ezkurdiaekin eta Irujorekin batera, eta haiekin squashean jolasten aritu ziren ere. Pilotazaleak direnez, oso gustura pasa zuten".

Ruizek ez zuen eskerrak emateko hitzik. "Antolatzaileei, Arbizuko eta Lakuntzako udalei, parte-hartzaile guztiei, ekimena babestu dutenei... gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu; guretzako oso esperientzia polita, hunkigarria eta pozgarria izan da" aitortu zuen.



Perthes gaixotasuna dutenen familiei aureskuak dantzatu zieten unea.

Jurramendi Trail: Sakandarrak bikain

MENDI LASTERKETAK Beñat Katarain hirugarrena sailkatu zen, 301 korrikalarien artean

Igandean 5. Jurramendi Trail lasterketa jokatu zen Aiegin, bi distantzian: Jurramendi Traila (24 km, 1.700 m desnibel +) eta Txiki Traila (11 km, 700 m desnibel +). Bi probak kontuan hartuz ia 470 korrikalari lehiatu ziren Aiegin, garun-paralasia duen Lizarragako Aioraren aldeko ekitaldian. Horietatik gehienak Trail nagusian lehiatu ziren, eta 301 korrikalari lortu zuten proba osatzea.

Jurramendiko Traila Euskal Lasterkarien Selektioko Asier Larruzeak (2:07:02) eta Enara Oronozek (2:35:04) irabazi zuten. Larruzeak 28 segundo atera zizkion Xabi Zarranz nafarrari (2:07:30) eta 33 segundo Beñat Katarain bere taldekide lakuntzarrari (2:07:35). Ondoren, Joxeja Maiza etxarriarra izan zen sakandar finena, helmugan 49.a (15:33). Emakumezkoetan, Ioana Lopez izan zen lehen sakandarra, helmugan 179.a (3:08:57).

Sakandarrak

Sakandarrek maila polita eman zuten Jurramendiko Trailean.

Jurramendi Trail (24 km)

1. Asier Larruzea	2:07:02
3. Beñat Katarain	2:07:30
49. Joxeja Maiza	2:34:44
65. Iban Verdugo	2:41:00
85. Fran Araña	2:47:22
102. Ioseba Iza	2:52:45
115. Arkaitz Munarriz	2:55:05
149. Asier Leiza	3:02:48
179. Ioana Lopez	3:08:57
252. Maria Goikoetxea	3:27:44

* Oharra: Antolakuntzak ez du korrikalarien jaioterriko daturik eman eta gerta daiteke zerrenda honetan sakandarren bat ez agertzea.

Duatletek Altsasun dute hitzordua bihar

DUATLOIA Bihar, larunbatean, goizeko 10:30ean Nafar Kirol Jolasen Altsasuko Duatloi probaren txanda izango da, kategoria txikiena, eta 15:45etik aurrera nagusien proba jokatuko da. Aurten erreleboetan parte hartu ahal izango da, lehenengoz

Bihar, martxoaren 23an, larunbaterekin, Sakana Triatloi Taldeak hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin antolatutako IX. Altsasuko Copreci Duatloia jokatuko da, Sprint Distantziako proba. Aurreko urtean hotzari eta euriari aurre egin behar izan zioten duatletek, baina larunbaterako primerako eguraldia iragarri dute eta eguraldia ez da aitzakia izango.

Goizean, 10:30ean, kategoria txikikoak ariko dira lehian, Nafar Kirol Jokoetarako (NKJ) baliagarria den proban, eta arratsaldean, 15:45etik aurrera, proba nagusia jokatuko da.

Goizeko 10:30ean txikienak Txioan

Kategoria txikikoak –117 inguru daude izena emanda– Txioa haur ikastolaren inguruetan prestatutako zirkuituan lehiatuko dira, Nafar Kirol Jolasetarako (NKJ) baliagarria izango den proban. Aurrebenjaminak 10:30ean hasiko dira (250m-1 km-125 m), benjaminak 10:45ean (500 m-2 km-250 m), kimuak 11:30ean (1 km-4 km-500 m) eta haurrak 12:00etan (2 km-8km-1 km). Juniorrek eta kadeteek helduen proban parte hartuko dute, helduen distantzia bera eginez.

Arratsaldean helduak: 5 km-22 km-2,5 km

IX. Altsasuko Copreci Duatloia arratsaldeko 15:45ean abiatuko da Foruen Plazatik. 15:45ean emakumeek ekingo diote probari, 15:51ean gizonezkoek eta aurten, nobedade bezala, erreleboan aritzeko aukera egongo da eta 15:52ean abiatuko dira errelebotan ariko direnak. 170 triatleta daude izena emanda, guztira.

Ibilbidean ez dago aldaketarik eta aurreko urteetako ibilbide berbera izango du probak. Altsasuko herri gunean pres-



Aurreko urtean euria eta hotza izan ziren etsai nagusiak Altsasun. N. MAZKIARAN

GOIZEAN 117 DUATLETA ESPERO DIRA ETA ARRATSEAN 170 INGURU, EGURALDIA LAGUN

tatutako 2,5 km-ko zirkuituari bi bira eman beharko dizkiote korrika, segidan Iortia Kultur Gunearen aurrean dauden boxetan, trantsizio gunean, bizikleta hartu eta 22 km-ko distantzia osatzeko. Hasieran, duatletek Olaztiraino joko dute, Urbasako portua igotzen hasi, eta Altamirako bidegurutzeara, Altamira jaitsiz. Altsasu zeharkatuta NA-1000 errepidean aurrera egingo dute, Zegama Otzaurteko bidegurutzeraino. Bertan buelta osoa hartuko dute, Altsasuko boxetara joan arte. Bukatzeko, bizikleta utzi eta 2,5 km-ko zirkuituari bira bat eman beharko diote korrika, Foruen plazako helmugara iristeko.


170 duatleta proba nagusian Aurreko urtean, izugarritzko hotzari eta euriari aurre eginez

195 duatletek hartu zuten parte Altsasuko Duatloian eta Araba tri taldeko Iker Ortiz de Zarate (1:07:08) eta Lourdes Oiarzabal (1:21:01) gailendu ziren. Mikel Astiz ihabartarra zazpigarrena (1:07:49) eta Sergio Garcia de Eulate bederatzigarrena (1:08:25) sailkatu ziren.

Atzo Guaixeko erredakzioa ixterakoan Nafar Kirol Jolasetan 117 duatleta eta helduen proban 170 duatleta zeuden izena emanda, eta primerako eguraldia aurreikusten denez, proba ederra izatea espero dute antolatzaileek. Duatloia zuzenean jarraitzeko proba polita da eta gertutik jarraitzeko Altsasura gerturatze-ko gonbita egin du Sakana Triatloi Taldeak.

Sariak

Sariei dagokienez, lehen gizonetako eta emakumezkoak produktuteak eta garaikurra jasoko dute eta bigarrenak eta hirugarrenak trofeoak. Lehen juniorrek, lehen 23 urtez azpikoek, lehen betanoek, erreleboetako lehenek eta lehen sakandarrek trofeoa jasoko dute eta talde onenak ere oroigarria jasoko du.



Gomez Aranguren. SAKANA T.T.

Garcia Eulate laugarrena Aranguren

Igandean VII. Aranguren Ibarra Duatloia jokatu zen, eta 250 duatleta inguruk parte hartu zuten bertan, goiz freskoan. 5 km korrika, 18 km bizikletan eta 2,5 km korrika batu behar izan zituzten. Sakana Triatloi Taldeko taldekide gehienek parte hartu zuten proban, eta sekulako maila eman zuten. Tri-Urgazia taldeko Joseba Goikoetxeak irabazi zuen (55:10) eta Sergio Garcia de Eulate podiuma zapatzear egon zen; proba despeditzeko kilometro baten faltan lasterketa buruan zegoen altsasuarra, baina, azkenean laugarrena izan zen (55:27). Hiruki Valle de Egües Triathlon taldean dabilen Mikel Astiz ihabardarra ere top-tenean sailkatu zen, seigarrena iritsi baitzen helmugara (55:42). Francisco Javier Gomez 22.a sailkatu zen, bere mailan, betanoetan lehena (59:02). Emakumezkoetan Nuria Rodriguez gailendu zen (Anaitasuna, 1:03:38) eta Silvia Perez (Sakana T.T.) 12.a iritsi zen (1:15:17).

Arbizukoa, ate joka

Hurrengo astean, martxoaren 30ean 23. Arbizuko Duatloia jokatuko da. Izena ematea zabalik dago martxoaren 25era arte Nafarroako Triatloi Federazioan (www.navarratriathlon.com).

Etxarrik Nafarroako Kirol Jokoak hartuko ditu

HERRI KIROLAK Aurreko igandean hasi zen Nafarroako Herri Kirol Jokoen Txapelketa, Txantrean. Bertan aritu ziren Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastoletako taldeak. Etzi, igandean 2. jardunaldia jokatuko da Etxarri Aranazko frontoian, 15:30ean

Aurreko asteburuan hasi ziren Nafarroako Herri kirol Federazioak eta Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak antolatutako Nafarroako Kirol Jokoak, Txantreko Ezkaba plazan jokatutako lehen jardunaldiarekin. Etxarri Aranazko Euskalerriari pilotalekuak hartuko du bigarren jardunaldia, igandean, 15:30ean. Hasieran goizean jokatzea da, baina Altsasun manifestazioa dagoenez, arratsaldera atzeratu da jarduna.

Nafarroako Kirol Jokoen lehen jardunaldi jokatuko dira eta final handia, apirilaren 7an Altsasun jokatuko da. Lehen lau jardunaldietako denborak batuta, denborarik onena lortzen duten lau taldek finalerako txartela lortuko dute. Urteik urtera parte hartzea gora doa eta aurtengo 11 klub edo elkarteetatik sortutako taldeak lehiatuko dira, tartean Sakanako Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastoletatik sortutakoak.

Txantreko lehen jardunaldiak eman zuena

Txantreko lehen jardunaldian kimuen mailako proba konbinatua 20 talde lehiatu ziren, 5 multzotan banatuta. Berriozar B izan zen azkarrena (7:25). Sakanako taldeei dagokienez, Andra Mari 4 bigarrena sailkatu



Kimuen mailan 20 talde aritu ziren proba konbinatuetan.

zen (7:27), Andra Mari 6 hirugarrena (7:36), Bargagain laugarrena (7:42), Andra Mari 1 seigarrena (7:51), Andra Mari 7 zortzigarrena (7:54), Intxusburu hamargarrena (7:55), Andra Mari 5 hamabosgarrena (8:12), Gainsol 17.a (8:17), Andra Mari 3 hemezortzigarrena (8:29) eta Andra Mari 2 hogeigarrena (8:41).

Haur mailako proba konbinatua 10 talde lehiatu ziren hiru multzotan. Igantzik lortu zuen denbora onena (9:16). Andra Mari 3 bigarrena izan zen (9:49), Andra Mari 1 bederatzigarrena (11:16)

eta Andra Mari 2 hamargarrena (11:28). Eta kadete mailako proba konbinatua 7 talde aritu ziren bi multzotan. Andra Marirena izan zen denborarik onena (10:20) eta Iñigo Aritza hirugarrena sailkatu zen (10:22).

Sokatira bertan behera

Sokatira probak hasi behar zirenean, euria hasi zen eta txapelketa bertan behera uztea erabaki zuen antolakuntzak. Hortaz, lehendabiziko jardunaldia ez da puntuatuko.



Garikoitz Flores eskuinean, Esteponako hirugarren postua ospatzen. UTZITAKOA

Garikoitz Floresek podiumean ekin dio Espainiako Txapelketari

AUTOMOBILISMOA Esteponako Peñas Blancas igoeran hirugarrena sailkatu zen, bere mailan lehena

Asteburuan hasi zen Espainiako Automobilismoko Mendi Txapelketa, Esteponan jokatutako Peñas Blancas igoerarekin. Bertan parte hartu du Garikoitz Flores Aristorena pilotu lakuntzarrak, BRC B49 barketarekin. Aurreko urtean Floresek Espainiako Mendi Txapelketako II. Kategoria irabazi zuen, eta aurtengo ere maila horretan lehiatzen ari da lakuntzarra, II. Kategoria.

Hirugarrena scratchean

Eguraldia lagun, Peñas Blancas igoera ikusgarria izan zen. Txapelketako I. Kategoria lehiatzen den Javi Villa pilotu asturiarrak (BRC B53) sekulako erakustaldia eman zuen eta bera izan zen azkarrena (7:35.84), bere mailan lehiatzen den Cristian Broberg pilotuaren aurretik (8:09.00) eta II. Kategoria dabilen Garikoitz Floresen aurretik (8:14). Jakina, bere kategorian, II. Kategoria,

lehena da Flores. Hasieran erritmoa hartzea kosta egin zitzaion lakuntzarrari, baina behetik gora egin zuen eta aurtengo denboraldia aurrekoa bukatu bezala hasi da Floresendako: II. Kategoria irabazten eta scratchean hirugarren postura igotzen.

Espainiako Kopa: 8 proba

Aurtengo Espainiako Mendi Txapelketarako 8 proba izango dira baliagarriak: aurreko asteburuan jokatutako Esteponako Peñas Blancas igoera; apirilaren 27an eta 28an Ubrique jokatu den igoera, maiatzaren 18ko eta 19ko Fitoko igoera; ekainaren 8ko eta 9ko Guia de Isora igoera; uztailaren 13ko eta 14ko ALP 2500 igoera; abuztuaren 10 eta 11ko Chantadako igoera; irailaren 28 eta 29ko La Santa igoera eta urriaren 19ko eta 20ko Les Revoltes d'Ibiza igoera.

Inter Movistarrekin postua jokoan du Osasuna Magnak

ARETO FUTBOLA Sailkapenean hirugarrena da talde berdea eta etzi postua du jokoan Inter Movistarrekin

Osasuna Magna Xotak lehen mailako ligako hirugarren postuari eusteko balio izan zioten hiru puntu oso garrantzitsu lortu zituen larunbatean, Valdepeñas 3 eta 6 irabazi eta gero. Eric Martel izan zen partidako

izarra, lau gol sartu baitzituen, Rafa Usinen eta Bynhoren beste bi golekin batera. Arbitroak Bynho aldageletara bidali zuen, falta gogorra egiteagatik, eta partida bateko zigorra jarri diote. Ildo honetan, Valdepeñas

zale batzuen jokaera deitoragarria salatu zuen Bynhok. Txiribuelta eginez ospatu zuen gola, eta zaleek "mono" deitu ziotela salatu zuen jokalarri berdeak sare sozialetan. Osasuna Magnak bere babes eta maitasun handiena helarazi zion Bynhori.

Horrela, sailkapenean arerio zuzena den Movistar Inter taldea sentsazio bikainekin hartuko du igandean Osasuna Magnak Anaitasunan (13:15). Partida estua espero da, hirugarren postua baitago jokoan.



Bynhok Valdepeñasen oihu arrazistak entzun behar izan zituela salatu zuen. XOTA



Burundar Txistulariak taldea entseguan.

'Rhythm and music', txistuaren musikaren erritmoan

Burundar Txistulariak taldeak kontzertua eskainiko du datorren martxoaren 30ean, 19:30ean, lortian

ALTSASU

Txistua euskal musikaren instrumentu ospetsuenetakoa eta garrantzitsuenetakoa da. Festa eta erromeria guztietan presente dago. Hala ere, txistuarekin edozein musika jo daiteke. Eta hori da, hain zuzen ere, Burundar Txistulariak taldeak erakutsi nahi duena. Martxoaren 30ean *Rhythm and music for txistu* kontzertua egingen du lortia kultur gunean, 19:30ean. "Denetarik" joko dutela esan du Juan Pablo Urizar Burundar Txistulariak-eko kideak.

Txistulariek jazz "pieza batzuk", berpizkundeko piezak, euskal dantzen doinuak, Lorenzo Ondarraren Aitziber pieza... denetarik joko dute *Rhythm and music for txistu* ikuskizunean. "Duela 15 urte agian bai izan zen zerbait berria. Baina orain arazo handirik ez da txisturako musika moldatzea". Oscar Sanchez txistularien taldeko kidea da eta hainbat abestien moldaketa egin du. Beste batzuk Durangoko talde batek egindakoak dira, Urizarrek azaldu duenez. Gainera, moldaketa batzuk berriak dira eta kontzertuan estreinatuko dituzte. Esaterako, *Aurrera Altsasu* abestiaren moldaketa egin dute.

Erromeriak baino gehiago

Kontzertuaren helburua, nolabait, txistua "gizarteratzea" da, hau da, "txistua ez dela bakarrik erromeriendako, musika asko egin daiteke txistuarekin" eta kontzertuen bidez erakutsi nahi

dute. Iaz Etxarri Aranazko abesbatzarekin batera kontzertua eskaini zuten, eta, aurten, hainbat lagun izanen dituzte ere. Izan ere, txistulariekin batera gitarrak, abeslariak eta beste hainbat musikari eta dantzari ariko dira. "Zerbait animatua eta dinamikoa egingen dugu".

Txistulariak eta lagunak

Burundar Txistulariak taldea "16 edo 18 txistularik" osatzen dute Urizarren arabera. Haiei "beste 16 edo 18" txistulari gehituko zaizkie hainbat abestietan. "Txistu klaseak ematen ditut Urdiainen eta Iturmendin, eta ikasleak kontzertuan parte hartzera gonbidatu ditugu". Kontzertuan parte hartzearekin Urizarrek ikasleak "ilusionatzea" nahi du, baita kontzertu bat egitea zer den eta "urduri jartzea" ere.

Erritmoa izanen da oinarria kontzertuan. Sanchezek azaldu duenez *Rhythm and music* izenburua aukeratu dute *I got Rhythm I got music* abestiaren base harmonikoan oinarritu direlako abestiak sortzeko. Gainera, Urizarrek gaineratu duenez, ikuskizun "entretengarria" izanen da. "Hori da beti gure helburua. Entzuleak dibertitzea eta denbora pasa on bat izatea". Hortaz, txistuaren beste aldea ezagutzeko gonbitea luzatu du. "Kontzertua izan ondoren beti dator jendea esanez oso polita izan dela baina ezin izan zuela joan. Etorri eta zuzenean ikusi!".

"Dantza egitean nire burua ez dago presente"

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako lau taldek Tarragonako Koreografia Lehiaketan parte hartu dute. Hiru, gainera, sariarekin itzuli ziren etxera. Lanaren emaitza dela diote dantzariak, hala ere, "zerbait gustatzen zaizunean ez da horren sakrifizioa"

ALTSASU

Dantza egiten duenean burbuila batean bezala sentitzen da Saioa Iraizoz. Musika eta bera daude momentu horretan, besterik ez, eta bere burua ez dago presente. Zerbait berezia da. Horrelako zerbait ez duela inoiz sentitu azaldu du dantzariak. Haizea San Romanek antzeko zerbait sentitzen du; poztasuna bezala deskribatzen du, ongi sentitzen da dantza egiten duenean. Marcos Santosendako dantza adierazteko modu bat da, erlaxatzeko bide bat. Dantza zerbait berezia da ere Tarragonako Koreografia Lehiaketan parte hartu zuten Irantzu Dantza Eskolako 21 dantzariendako. Hitzekin adierazi ezin den zerbait da. Mugimenduen bidez azaltzen dutena.

Oihu Loreak, Arima, Ilargiaren Alabak eta Maitesua Dantza Eskolako taldeak aritu ziren igandean, martxoaren 17an, Tarragonako auditorian egingo dako Koreografia Lehiaketan. Oihu Loreak, Arima eta Ilargiaren Alabak taldeek junior kategorian parte hartu zuten eta Maitesua haur kategorian. Lau taldeak dantza garaikidea, modernoa edo lirikoa sailean lehiatu ziren. Gainera, Sutan taldeko Igone Augusto eta Leire Bujanda dantzariak erakustaldia egin zuten.

Koreografia Lehiaketan egingo dako lanak emaitza izan du, izan ere, lau taldeetatik hiru sariarekin etorri ziren: Oihu Loreak taldeak bigarren saria lortu zuen, Arimak laugarren saria eta Maitesua laugarren saria irabazi zuen bere kategorian. Gainera, ondoren jakin zuten bezala, Oihu Loreak taldeak puntuazioaren arabera lehenengo taldearekin berdindu zuen, baina irabazleak koreografia atalean puntuazio gehiago zuenez, beraiendako izan zen lehenengo saria. Hortaz, "lehenengoak" ere zirela jakiteak "indar" gehiago eman diela esan



Tarragonako Lehiaketan parte hartu zuten dantzariak eta irakasleak. UTZITAKOIA

du Saioa Iraizoz Oihu Loreak taldeko kideak.

Lehiaketa

Esperientzia "ikaragarria" izan dela esan dute dantzariak. "Oso ongi" pasa ez ezik, "nahi duzuna lortzeko" lana egin behar dela ikasi du. Entsegu ordu asko daukete koreografia baten atzean; lehiaketa baten atzean: "asteen hiru edo lau egunetan entseatzeko guren. Egunean ordu bat eta 45 minutu eta larunbatetan goizez", azaldu du San Romanek.

Dantza garaikidea oinarri zuten koreografiak prestatu zituzten lau taldeek. Hala ere, talde bakoitzak bere identitatea izan zuen agertokiaren gainean. Maitesua eta Arima taldeen kasuan koreografiak "lirikoagoak" ziren, mugimendu lasaiekin eta "biraketaz" osatuta. Oihu Loreak taldearen koreografia oso "indartsua" eta "adierazgarria" da. Estilo berekoa zen Ilargiaren Alabak taldearena.

Koreografia ez ezik, lehiaketako epaileek beste hainbat elementu baloratzen dituzte ere: dantzarien arteko koordinazioa, jantziak, dantzarien teknika, koreografiaren egitura...

Elkarrekin

Irantzu Gonzalez dantzaria, Madrilen dantza ikasketak egin ondoren, duela bost urte Altsasura itzuli zen. Orduan udalak antolatutako dantza ikastaroak ematen hasi zen. Garai horretan hasi ziren dantzan Koreografia Lehiaketan parte hartu zuten dantzariak. Oihu Loreak duela hiru sortu zen. Sant Cugat-eko Koreografia Lehiaketan parte hartu zuten Moon Dancers haur taldearekin batera. Saioa Iraizoz eta Haizea San Roman dantzariak parte hartu zuten lehenengo lehiaketa horretan, izan ere, taldeak gutxi aldatu dira urte hauean. Gonzalezek adierazi duenez, "denak urte asko daramate elkarrekin dantza egiten, eta elkar ezagutzen dute".

Iaz Sant Cugat-eko Koreografia Lehiaketan parte hartu zuten Oihu Loreak eta Arima taldeek. Oihu Loreak-ek bosgarren saria jaso zuen. Koreografia Lehiaketa berdinean parte hartu dute, baina Tarragonako ediziora joan dira lau taldeak. Gainera, Igone Augusto dantzaria irakasle bezala ere mustu zen lehiaketan, izan ere, bi talde berrien irakaslea izan da.



Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalistak. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Lazkozen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren seigarren finala

Bihar jokatu da txapelketaren finala Anaitasuna kiroldegian. Joxema Leitza txapel jartzailea izanen da

ETXARRI ARANATZ - ARBIZU

Tutera, Urdazubi, Irurita, Lizarra, Atarrabia, Etxarri Aranatz, Lesaka eta, azkenik, iritsi da Nafarroako Bertsolari Txapelketa Nafarroako erdigunera, Iruñera. Bihar izanen da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 44. edizioaren finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, 17:00etan.

30 bertsolarik eman zuten izena 2019ko Txapelketan. Aurrekanporaketak jokatu ondoren, 24 pasa ziren final-laurdenekotara. Finalaurrekoetan 18 bertsolari aritu ziren, eta, azkenik, zortzi bertsolariak osatu dute finaleko parte hartzaileen taula, Eneko Lazkoz buru dela. Etxarriararekin Xabier Terreros lesakarra, Joanes Illarregi leitzarra, Eneko Fernandez lesakarra, Julio Soto gorritiarra, Xabat Illarregi lesakarra, Julen Zelaie-ta beratarra eta Xabi Maia elizondoarra ariko dira.

Eneko Lazkozen seigarren finala izanen da; beraz, 2010tik finalista izan da txapelketa guztietan. Gainera, 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketan buruz burukoa Julio Sotorekin jokatu zuen eta txapeldunorde izan zen. Hortaz, duela bi urte lehen aldiz Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu zuen, BECen. Lazkoz 14 urterekin hasi zen Etxarri Aranatzko bertso eskolan eta 2004an parte hartu zuen lehen aldiz Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Atarrabiako finalaurrekoa irabazi zuen eta zuzenean finalerako txarte-

la lortu zuen. Aurtengo txapelketan puntu gehien bildu duen bertsolaria da, 399 puntu.

Txapel jartzailea

Lazkoz ez da finalean egonen den sakandar bakarra. Izan ere, Nafarroako Bertsozale Elkartek txapel jartzailea Joxema Leitza izatea erabaki du (ikus 11 galdera, 24. or.). Elkartearen hitzetan, bertsoaren ekosistema osatzen duten ofizio eta egiteko asko daude eta Leitza horiek guztiak bete ditu: bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta bertso eskoletako irakaslea izan zen. 1995ean Nafarroako Bertsozale Elkarteko eragile eta irakasle izan zen eta hainbat Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartu du.

Euskal filologian lizentziatua da Leitza, eta euskalgintzan bitanik jardun du. Besteak beste, Bierrikelkartean edota Oinarriak bilgunean. Horregatik guztiagatik Nafarroako Bertsozale Elkartek lan eskerga aitortu eta eskertu nahi izan dio 44. Nafarroako Bertsolari Txapelketaren txapeldunari, txapel jartzailea izendatuz.

Finala

Bertsozale Elkartetik hainbat ohar jakiranazi dituzte. Ateak 15:30ean irekiko dituzte, eta taberna 17:00ak arte irekita egonen da. Ondoren, bertsoaldiak amaitu arte ez mugitzeko eskaera egin dute, bertsolariak mugimendu guztiak ikusten dituztelako.

Antzerkira salto egiteko

Oholtzara salto programaren barruan antzerki tailerra egin da Altsasu Institutuan eta aurreko larunbatean, martxoaren 16an, tailerraren amaierako festa handia egin zuten Tafallan. Bertara, joan ziren Altsasu institutuko tailerlean parte hartu duten 15 bat ikaslek. Guztira, 80 gazte bildu ziren eta egunean zehar hiru tailer egin zituzten: zirkua, dantza eta musika.



PAMPLONA ACTUAL.COM

Kop eta Alerta Gorria taldeen kontzertua Etxarrin, gaur

Alerta Gorriak diska berriaren aurkezpen bira hasierari emanen dio gaur Etxarriko gaztetxean, 23:00etan

ETXARRI ARANATZ

Kop Kataluniako taldearen eta Alerta Gorria talde sakandarraren kontzertua izanen da gaur, ostirala, 23:00etatik aurrera, Etxarri Aranatzko gaztetxean. Alerta Gorria taldearen disko

berriaren aurkezpen biraren hasiera izanen da Etxarriko kontzertua.

Kop hardcore-punk estiloko musika taldea da. Ezaguna da Sakanan, izan ere, hainbatetan egon da ibarrean jotzen. Orain-

goan, Alerta Gorria taldearen *Amets gaizto bihurtu arte* diska- ren aurkezpen biraren hasieran lagunduko du.

Gaur Etxarrin hasiko du disko berriaren aurkezpen bira Arbizuko taldeak, eta, bihar, martxoaren 23a, Bilboko Ipar Haizean eskainiko du kontzertua. Datorren astean Zumaian egonen da eta apirilaren 6an, larunbata, Sakanan egonen da berriz ere, Irurtzongo Larrazpin. Bira Danimarkan amaituko du Alerta Gorriak.



BAZTERRETIK

ARBIZUKO LIBURUTEGIA

Arbizuko liburutegiaren gomendioak

Ia urte bat daramat lanean Arbizuko liburutegian eta hasieran ez nekien oso ongi zer gomendatu etortzen zen jendeari, gehienetan mota berdineko liburuak irakurtzen nituen eta hori aldatzea erabaki nuen.

Nola? Beste liburu klaseei aukera bat ematen. Liburutegian kampana bat daukagu abian: *Hartu liburu bat itsu-itsuan*. Liburuak forratuta daude eta pista txiki batzuk dauzkate idatzita. Pista horien arabera liburu haurta dezakezu eta etxera ailegatzean zabaldu eta zer tokatu den jakingo duzu. Interneten ikusi nuen eta aukera bikaina irudituzitzaidan beste liburu klase eta idazleei aukera bat emateko.

Horregatik ez ditut liburu "berriak" gomendatuko baizik

eta, agian, erraz hartzen ez ditugunak.

Nire lehendabiziko aukera neskato yemendar eta gazte baten bizitza kontatzen duen liburu da: **Nojud naiz, 10 urte eta dibortziatua - Nojud Ali**. "Neskatila txikia da Nojud, ez da erregina ezta printzesa ere, guraso batzuk eta neba-arreba asko dituen neskatala arrunt bat baizik. Baina, 2008ko otsaileko gau hotz eta ilun batean, malko lodien atzean ezkutatu zen bere begirada polit bihurria, aitzak esan ziolarik bera baino hiru aldiz zaharragoko gizon batekin ezkondu behar zuela".

Bigarren aukera bezala eleberri grafikoa: **Gerezi garaia - Belatz**. "Teoria ederren zale baino, ekintza-gizona dugu Lucio Urtubia. Haren bizitza etenik gabeko

borroka bat izan da, eta, batzuek kontrakoa uste duten arren, ondare hori utzi digu, Lucioaren altxorra. Belatzek luze galdekatu du Lucio hainbestetan kontatutako pasadizoen inguruan, ekintzak, lekuak, pertsonak, gertakizunak, atmosferak iruditzen zehaztasunez islatu ahal izateko."

Eta azkenik etxeko txikiei zuzendutako aukera: **Tximeleta belarriak - Luisa Aguilar, André Nieves**. "Maddi neska berezia da, eta ez ezerk ez inork ez du lortuko haren ezaugarriari balioa kentzerik, amak gakoa eman baitio edozein kritikaren aurrean airosu ateratzeko: autoestimua, irudimena eta naturaltasuna".



Altsasuko justizia liga: Aitona Yoda, Prekarietate Girl, Katisa, Altsasu Kapitaina eta Basajaun. UTZITAKOIA



Altsasuko Willy Wonka eta Umpa Lumpak. UTZITAKOIA

"Altsasuko kultur ekimen handiena izango da"

ALTSASU KAPITAINA GAZTEWOOD JAIALDIKO ANTOLATZAILEA

Duela hamar urte egin zen II. Gazte Wood film laburren herri jaialdia. Aurten, kamerak berriz martxan jartzeko deialdia luzatu dute Altsasuko Gaztetxeko kideek

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasuko kaleetako faroletatik zintzilikatu dituzten banderolek, udaletxearen parean dagoen klabetak eta inauterietan hainbat taberna Altsasuwood bihurtu izanak, argi uzten dute 2019 urtea Gazte Wood urtea dela. Altsasuko Gaztetxeko kideak, gainera, ez daude bakarrik: Altsasuko justizia ligako kideak eta Willy Wonka eta Umpa Lumpak film laburren herri jaialdia prestatzen ari dira. Pelikuletako unibertso propioa sortu dute.

2009an izan zen Gazte Wood jaialdiaren azken edizioa, eta aurten berriz egitea erabaki duzue. Zergatik?

Altsasuko justizia liga bezala Altsasuko Gazte Asanbladaren erronka hartu genuen. Duela hamar urte film labor lehia eta jaialdi bat egin zutela bada, gure, eta gogoak zituzten berriz egiteko. Eta aurten egitea bururatu zitzaion. Orduan, hor sartu ginen Altsasuko justizia ligako kideak. Uste dugu gure herrian horrelako kultur ekimenak ego- tea garrantzitsua dela.

Zein da helburua?

Gure gogoak asetzera eta, nola ez, ongi pasatzera. Beste hainbat helburu daude. Helburu nagusia Altsasuko herriari kultur ekimen garrantzitsu bat oparitzea da. Gero, Altsasuko kuadrillak martxan jartzea eta, azkenik, eta nik uste oso garrantzitsua dela, gazte asanbladako kide berriak, zaharrak eta ez hain zaharrak batzea eta proiektu komun batean lanean ekitea.

Martxoaren 31ean, hurrengo astean, lanak aurkezteko epea amaitzen da. Zer nolako film laburrak bilatzen dituzue?

Esan beharra dago ez garelako datekin oso zorrotzak izango. Martxoaren 31n bukatzen da epea, baina argi daukagu inor ez dela bere film laburra aurkeztu gabe geratuko, ezin izan dutelako garaiz bukatu. Nahiko malguak gara. Bestela, ez dago gairik. Bakarrik bi arau oso erraz daude: mugikorarekin grabatzen bada horizontalean grabatu, 15 minutu baino gutxiago irautea eta mp4 formatuan aurkeztea bideoak.

Nola aukeratu dituzue sarituak? Sarituak badira, noski.

Txapelketa bat denez sariak egon behar dira. Hasieratik esan dugu

txapelketa bat dela, orain ezin dugu esan sariarik ez daudela. Hala ere, helburua ez da irabaztea edo ez. Orduan sarituak aukeratzeko nola egingo dugun ekainaren 8an jakingo da. Kategoria ezberdinak egongo dira, epaimahairen bat...

Esklusiban, beraz, ekainaren 8an gala handia ospatuko da. Nolako izango da?

Bai. Dagoeneko esan dezakegu ekainaren 8an, larunbata, Burunda pilotalekuan Gazte Wood gala izango dela. Ez daukat heldurrik esateko herri honek izan duen kultur ekimen handiena izango dela. Behintzat 2019ko lehen zati honetan. Urte hau honengatik gogoratua izango da. Ahalik eta jende gehien egotea, ikustea, parte hartzea eta, batez ere, ongi pasatzera eta barregarria izatea nahi dugu.

Gainera, Urrezko tiketak banatu dituzue eta pertsona horiek vip trataera izango dute.

Hori da. Altsasuko justizia ligarekin batera Willy Wonka eta Umpa Lumpa txiki batzuk aritu dira azpiko lanak egiten. Eta Willyk asmatu zuen bost Urrezko tiket banatuko zituela urtean zehar. Urrezko tiket bat jasotzen duten pertsonak galan vip eserleku pare bat izango dituzte.

Eta dagoeneko Urrezko tiket guztiak banatu dituzte?

Ez nago ziur. Uste dut oraindik maiatza aldean jendea adi egon behar dela. Baina hori Willy Wonkarekin hitz egin beharko zenuke.

Film laburrak galaren aurretik ikusi ahalko dira?

Bai. Iortia kultur gunean ikusteko aukera egongo da maiatza erdialdean, Iortian.

"Edozein pertsona izan daiteke bertsolari"

Joxema Leitza arbizuarra bertsolaritzari lotuta egon da aspaldidanik. Bihar Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala jokatu da, eta Leitza txapela jartzailea izanen da. Nafarroako Bertsozale elkartearen eta bertsolaritzaren egindako lana eskertu nahi dute

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

1 Nola bizi izan duzu Nafarroako Bertsolari Txapelketa?

Laneko kontuengatik eta ez dut Txapelketa asko jarraitu, baina Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz zerbait jarraitu ditut eta ongi egon dira. Idoia Granizo ere kanporaketan jarraitu nuen eta ongi.

2 Zer sentitu zenuen txapela jartzeko zugarantz zutezela esan zizutenean?

Duela bi urte inguru telefona galdu nuen eta deitu zidatenean elkartetik zirela esan zuten eta uste nuen epaileak edo gai-jartzaileak behar zituztelako deitzen nindutela. Beti behar da jendea. Baina finalean txapela jartzeko zela esan zidatenean ilusioa egin zidan. Elkartearen egindako lanaren errekonozimendua da.

3 Bertsozale Elkartearen bultzatzaileetako bat izan zinen. Irakasle ere izan zara.

1995ean sartu nintzen, 24 urte nituen eta gazteetatik zaharrena nintzen. Bortzirriak aldean zerbait zegoen eta beste hainbat lekutan. Lesakan Estitxu eta hasten ari ziren ere. Hutsetik hasi ginen.



Joxema Leitza bertsolari arbizuarra. BERTSOZALE ELKARTEA

4 Zein da gaur egungo bertsolaritzaren egoera Nafarroan?

Euskal kultur gintza osotasunean ikustea gustatzen zait, eta duela 40 urteko egoerarekin alderatzen badugu asko egin dela esan daiteke.

5 Txapelketarekin ere euskal kultura Nafarroa osoan hedatu nahi izan dute.

Bai, eta oso ongi dago. Hori da bertsolaritzak duena. Euskal kultura erreferente bihurtu da. Aurten lehenengo saioa Tuteran egin zen. 1997an Tuteran egin genuen saio bat ere eta euskaltegiko eta bertso eskoleetako ikasleak eraman genituen.

6 Sakanako bertso eskoleetako irakaslea ere izan zara.

Jendea badago, azken finean bertso eskolak bertsotan aritzeko taldeak dira. Bi pertsona baino gehiago behar dira aritzeko. Hilabete batean lau lerrotako bertsoak egiteko gai dira. Baina gero bertsolaritzan jarraitu behar dute. Gogoak eta nahia izan behar dute. Eskolaz kanpoko gauza asko dituzte, eta bertsolaritza ez da lehenetsuzkoa. Hori da zailena, behin hasiz gero jarraitzea. Gainera, bertsolaritzak etxean lan egitea eskatzen du ere. Ikusten ez den lan handia dago atzetik, eta oso garrantzitsua dena. Altsasun bi talde daude, Urdiainen ere uste dut beste pare bat dagoela, Etxarrin... Hamar eta hamabi urte bitarteko haurrak dira. Saiatu behar gara horiek mantentzen. Horretan ari gara.

7 Sakanan, besteak beste, Eneko Lazkoz, Saats Karasatorre eta Idoia Granizo gogoekin ari dira.

Bai, ari dira. Eneko 13-14 urterekin hasi zen. Gero tarte batean utzi zuen, baina 2009an gogoekin hasi zen eta lan handia egin du. Hor atzean etxean egiten den lan hori dago, ikusten ez den lana. Saats ongi ari da, txapelketa ona egin du, baina gehiago egin dezake. Eta Idoia hasiberria da. Bertsolaritzan ere esperientzia gradu bat da.

8 Zerbait berezia behar da bertsolari izateko?

Bertsotan aritzeko ez. Edozeinek egin ditzake bertsoak. Esan bezala, ikasleak hilabete batean bertsotan aritzeko gai dira. Baina bertsolari ona izateko zerbait berezia izan behar da. Edozein ez da agertokira ateratzeko eta kantatzeko gai.

9 Zu nola hasi zinen bertsotan?

Kasualitatez izan zen. Gasteiza ikastera joan nintzen. Han bertso eskola zegoen eta Bertsolari Txapelketa zen garai horretan. Nik ez nuen bertsolaritza ezagutzen. Lagun batek txapelketa ikustera joan nintzen. Gustatu zitzaidan eta bertso eskolan hasi nintzen.

10 Bertsolaritzan bertsotan aritzea ez ezik, beste hainbat lan daude. Eta guztiak egin dituzu.

Bertsolariek diote saioetan errazena bertsoak kantatzea dela. Gai-jartzaileak izugarritzko lana egiten du. Gaiak aukeratu behar dira, landu eta zehaztu, eta saio bakoitzean gai ezberdinak izan behar dira. Aste batean bi saio badira, lan gehiago. Epaile izateko ere trebakuntza txiki bat behar da.

11 Zer sentituko duzu une horretan? Eneko jartzeko aukera badago...

Ez dut momentu horretan asko pentsatu, baina bai Eneko jartzeko aukerak daudela. Eta emozio handia sentituko dut. Joanes eta Xabat Illarregi ere ezagutzen ditut bertso eskolan egon ginelako, Julio Soto aspaldi ezagutzen dut... Polita izango da. Baina bai, Eneko jartzeko berezia izan daiteke. Zenbait bertso botatzea ere pentsatu dut, baina oraindik ez dut ezer prestatu. Momentuaren arabera izango da. Ateratzen badira ongi. Aukeren arabera, Julio Soto egungo txapelduna da eta ongi ari da. Eneko egiten dakiena egiten badu irabaz dezake. Joanes eta Xabat ere ongi ari dira. Bai.

ZURE IDEIA

gk DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

GK@GKOMUNIKAZIOA.EUS **948 564 275**